13:00-15:00	Ikasgelako arratsaldeko txanda	Ikasgela berriz irekitzen da eta, honekin batera, irakasleetako bat ronda egitera doa. Normalean, bigarren txanda honetan ikasleak nekatuagoak daudenez jarduera ludikoagoak egiten dira, hala nola, jolasak eta marrazkiak. Hezkuntza sailak eta OETH-k antolatutako formakuntzak dauden egunean, arratsaldeko txanda ez da egiten, formakuntzak 14:00etan hasten baitira.
15:00-15:30	Egunaren ebaluazioa eta irakasleen koordinaketa	Behin ikasgela itxi dela, irakasleak egunean gertatutako elkarbanatzen eta ebaluatzen dute. Era berean, hurrengo eguneko materialak prestatzen dituzte.

*Iturria:* elaborazioa propioa; behaketaren bidez osaturikoa.


Irakasleak eguneroko rondetan ikasleen familiakideekin elkartzen dira eta elkarri berriak kontatzen dizkiote. Ikasleen bizitzako funtsezko agenteak direnez, ezinbestekoa da irakasleak hauen iritzi zein emozioei entzutea, ikasleen zein gurasoen behar emozionalak asetzeko. Hala ere, eta tamalez, guraso askoren kasuan haien seme-alaben ospitaleratze prozesua bakarrik bizitzen dute eta babes emozionala askotan irakasle zein osasun profesionalen esku gelditzen da. Nahiz eta leku faltarengatik familiak ikasgelaz kanpo gelditu behar diren, jatorrizko eskolarekin lehenengo harremana ezartzeko bitartekari dira. Hau da, ospitaleko irakasleak jatorriko ikastetxearekin harremanetan jartzeko, gurasoak ospitaleko irakaslearen datuak dituen txartel bat ematen diote ikastetxeko irakasleari. Modu honetan, ikasleen osasun egoeraren inguruko informazioarekin konfidentziasunez jokatzeko. Gainera, ikasgela arratsaldez ixten denez, familiek haurrak marrazkiak edo jolasak bezalako entretenitzeko materialak eskatu ditzakete ikasgelan.

Ikasgela bi gelaz osatuta dago. Horietako bat ikasleek erabiltzen dutena eta hiru espazioetan banatuta dago: (a) *mahaien zonaldea*, lan egiteko taldekatze desberdinak egiteko aukera ematen dutena (2a eta 2b Irudia); (b) *jolasen zonaldea* (2b Irudia) ikasleek behin eginkizun akademikoak amaitu dituztela modu askean jolasteko espazioa; eta (c) *ordenagailuen zonaldea* (2c Irudia), batik bat irakasleak erabiltzen dutena baina ikasleak informazioa bilatzeko, bideoak ikusteko edo bestelako baliabide digitalak erabiltzeko aukera ematen duen espazioa. Gainera, aipatu beharrekoa da, ikasgelaren pareta kristalezkoak direla. Horrela, gurasoek haien seme-alabak nola dauden edo zer nolako lanak egiten ari

diren ikusi dezakete. Bigarren gelaren kasuan, irakasleen gela dago (2b Irudia). Honetan jolas zein material desberdinak gordetzen dituzte eta bilerak egiteko espazioa dago.

## 2. Irudia

### *Ikasgelaren Antolamendu Fisikoa*



*a. mahaien zonaldea*

*b. Jolas-tokia eta irakasleen gela*

*c. Ordenagailuen zonaldea*

*Iturria:* baimenarekin ateratako argazkiak.

Ospitaleetako gelek ikasleen jatorrizko ikastetxeekin duten harremana berebiziko garrantzia du ospitalean dauden ikasleen ikaskuntza prozesuan. Hasieran, bi irakasleek ez dute informazio diagnostikorik ikasleak ospitalean emandako denborari buruz, eta horrek beren lanaren izaera aldakorra eta dinamikoa adierazten du. Jatorrizko eskolekin komunikazioa ezartzeko, irakasleek txartel bat ematen diete gurasoei; bertan, harremanetarako datuak, izen osoa, telefonoa eta mezu elektronikoak zehazta daudelarik. Estrategia honek ikastetxeko tutoreekin zuzenean komunikatzeko aukera ematen du, ikasleari buruzko informazio akademiko garrantzitsua jasotzeko aukera izanik. Konfidentzialtasuna eta diskrezioa ezinbestekoak dira, eta beraz, aurrerapen akademikoari buruz informatzera mugatzen da, medikuaren xehetasunik eman gabe. Ikuspegi horrek ikasleen eta haien familien pribatutasuna eta konfidentzialtasuna errespetatzen ditu, eta hezkuntzan eta ongizate akademikoan jartzen du arreta. Behin, jatorrizko zentroko tutorearekin harremanetan jarrita, asteroko bilera batekin koordinatzen dira, eta bertan egunkari bat osatzen dute hurrengo astea planifikatzeko eta jatorrizko zentroko irakasleari feedbacka emateko. Praktika horrek aukera ematen du parte hartzen duten aldean arteko komunikazio etengabea eta eraginkorra izateko, arreta pertsonalizatua eta ikaslearen beharretara egokitua bermatuz.

## 1.2. Ospitale-ikasgelen irakaskuntza-esperientzia, erronkak eta aukerak

Elkarrizketatutako bi irakasleek gela honen funtzionamendua ohiko hezkuntza-ingurunearekin alderatuta desberdintasun nabarmenak daudela diote. Diotenez, ospitaleetan *eskola txiki* gisa funtzionatzen duten gelak dira, horrela, adin desberdinetako haurrak giro lasai batean biltzen dira, ohiko ikasgeletako estresetik eta oihuetatik urrun. Gainera ikasgela hauen lehengo helburua ez da hainbeste ikaskuntza prozesu sakona bideratzea, bakean eta lasaitasunean lan egitea baizik; eta horrek ikasleen ikaskuntza eta ongizate emozionalerako ingurune aproposa sortzen du: *“Ospitaleko ikasgela honetan, lasaitasunean lan egiten da”* (Ir1); *“Ikasleen egoerari arreta ematean datza eta bere emozioak adierazteko uneak seguruak sortzea”* (Ir2); *“Gehien bat gakoa, ikasleen interes eta beharretara egokitzea da, bai arlo akademikoan bai emozionalean ere”* (Ir2). Izan ere, ospitale-ikasgelen ezaugarri bereizgarrietako bat, banakako arreta eta arreta egokitzailea da. Hezitzaileek ikasle bakoitzaren osasun-baldintzen arabera lan egiten dute, eta horrek plangintza malgua eta etengabe egokitzea eskatzen du, haur bakoitzaren adinaren eta behar espezifikoaren arabera: *“Zailena adin aniztasunari aurre egitea da eta horiei plan desberdinak egitea”* (Ir1). Arreta pertsonalizatu hori ikasgelako adin eta maila akademikoaren arabera egiten da, eta horrek aldakortasun handiagoa dakar hezkuntza-prozesuan: *“Baina hemen egunerokotasuna eta aldakortasuna da gakoa, ikaslearen baldintzak edo eskaeraren arabera egiten dugu lan.”* (Ir2).

Ondorioz ikusita ikasgelaren ezaugarriak zeintzuk diren, badirudi metodologia zehatzik ez egotea justifikatuta egon daitekeela, ikasle bakoitzaren behar indibidualetara eta zentro mediko bakoitzaren dinamiketara egokitu behar direlako bertako irakasleek. Gainera, lan-ingurunearen izaera aldakorra dela eta, epe luzerako programak egiteko zailtasuna ere adierazten dute, eta horregatik, beharrezkoa den heinean inprobisatu egiten dute eta materialak apurka prestatzen dituzte. Honek guztiak, egoera bakoitzaren berezitasunei modu eraginkorragoan heltzeko eta irakaskuntza egoera aldakorren arabera egokitzeke aukera ematen die. Gainera, gelan bi irakasle egoteak ikasleen beharrak modu eraginkorragoan asetzeko behar duten askatasuna ematen die. Irakasleen arteko zeregin-banaketa horri esker, irakasle batek ikasleak artatzen ditu eta besteak, berriz, irakaskuntza prestatzen du. Horrek, adin-aniztasunaren kudeaketa eta ikasleen banakako beharretara egokitutako ikasketa-planak lantzea errazten du. Izan ere, bi irakasleek inprobisazioa euren laneko

funtsezko trebetasuna eta zailtasunetako bat dela diote, askotan ez baitute ikasleek hasieran zuten mailari buruzko aurretiko informaziorik:

Hasieran ez dakigu ikasleen maila zein den, ez ditugulako ezagutzen; moldatzen joaten gara, ikasleek frustratu ez daitezen. Horregatik dira hain garrantzitsuak guk prestatuta dauzkagun material guztiak, hauekin inprobisatzea eta ikasle bakoitzaren beharretara egokitzea askoz errexagoa baita (Ir1).

Hasierako ezagutza faltak etengabeko doikuntzak eskatzen ditu irakaskuntzan, frustrazioak saihesteko eta ikasleen aurrerapena bermatzeko. Gainera, klaseen egokitzapenak errazagoa dira material prestatuen eskuragarritasunagatik, irakaskuntza ikasle bakoitzaren premia espezifikoetara azkar egokitzeko aukera ematen baitiete.

Bestalde, harreman interpersonalei dagokionez, elkarrizketatuek medikuntzaren aurrerapen teknologikoei esker, gero eta gutxiago gertatzen den arren, alderdi zailena umeen galerari aurre egitea dela diote, esperientzia oso tristea baita langileentzat eta familientzat ere: *“Alde txarra umeak gaizki ikustea eta hiltzen direnean guzti hori kudeatzea izaten da”* (Ir2); *“Teknologia eta berrikuntza zientifikoei esker, denboraldiak motzagoak dira eta heriotza gutxiagoetan ematen da”* (Ir1). Era berean, ikasleekiko lehen harremanak erronka propioa du, ezezagunen presentziarekin eta familien banaketarekin lan egin behar baita, eta hori emozionalki zaila izan daiteke inplikaturako guztientzat. Erronka horiek gorabehera, esker ona aurkitzen dute ere euren lanean, batez ere familiek adierazitako iritzian, eta horrek aukera ematen die bizitza beste ikuspegi batetik ikusteko eta beren errealitatea gehiago balioesteko: *“Esker oneko lana da eta bizitza beste modu batean ikustarazten dizula. Errealitate horren ondoan, zure etxeko gauzak beste dimentsio bat hartzen du”* (Ir1); *“Esker oneko lana da, familia gehienek egiten duzun lana eskertzen dizute hamar mila aldiz”* (Ir2).

Gainera biek jolasaren garrantzia aipatzen dute ikasleek eduki teorikoak modu ludikoan eta esanguratsuan eskuratu ditzaten: *“Jolasen alde ludiko horrek, lagundu dezake ikasleak ikaste-prozesu horretan errezago barneratzen eta gehiago disfrutatzen.”* (Ir1). Hala ere, adin desberdinetako ikasleentzat joko egokiak aurkitzeko zailtasuna aitortzen dute, baina talde-lana, hezkuntza emozionala, hiztegia eta matematika bezalako gaitasunak lantzeko duten ahalmena baloratzen dute. Jolasak ikasleen egokitzapen prozesurako eta talde heterogeneoak kohesionatzeko garrantzia nabarmentzen dute, ikasle guztien

parte-hartzea eta onura bermatzeko: *“Egokitzapenak egiten ditugu, hala nola talde desberdinetan jolastu edo ikasle zaharrenak ikasle gazteekin elkar lagunduz jolastea.”* (Ir1). Jolasean oinarritutako irakaskuntza eta gamifikazioa bezalako metodologia espezifikoetan prestakuntza jaso duten arren, teknika horiek adin eta errealitate desberdinetako ikasleekin inguruneetan ezartzeko mugak onartzen dituzte: *“Ikastaroak egin izan ditugu eta nahiko interesgarriak iruditzen zaizkigu, baina aurretik esan bezala zaila izaten da, adin desberdinetako ikasleak jolas berdinetara jolastea”* (Ir1); *“Errealitate desberdinetara moldatzea ez da beti errega izan, batez ere, adinari dagokionez”* (Ir2).

Gainera, ospitaleetan arreta berezia jartzen zaio ikasleen ongizate emozionalari. Laguntza- eta ulermen-giroa sustatzen da, non haurrak erosoago eta gaixo gisa gutxiago sentitu daitezkeen. Arreta integral hori ikasketa-planeko etengabeko egokitzapenetan eta hezkuntza-jardueretan islatzen da, gela horietako eguneroko ohituraren parte baitira: *“Moldaketak eta egokitzapenak eguneroko kontuak dira”* (Ir2). Gela hauek ikasleek euren emozioak eta kezak adierazteko espazio seguru bat sortzearen garrantzia azpimarratzen dute irakasleek. Emozioak lantzeko baliabideak (ipuinak eta materialak, esaterako) badituzte ere, ikasle bakoitzaren beharrei arreta eskaintzea eta haien interes eta inguruabarrei egokitzea garrantzitsuena dela aitortzen dute:

Gehien bat gakoa, ikasleen interes eta beharretara egokitzea da, bai arlo akademikoan bai emozionalean ere [...]. Horretarako estrategia desberdinak daude: klaseren bat gelan eman, jolasak jaitsi eta berarekin jolastu, bere interesak ezagutu... ” (Ir2) .

## **2. Euskarri erabilgarrien diseinua, aplikazioa eta balorazioa**

Behin ikasgelaren ezaugarriak azterturik, bertako beharrak kontutan izanik euskarri erabilgarrien sorkuntza egitea erabaki zen, eta ahal zen heinean, hauen inplementazioa eta balorazioa. Hortaz, alde batetik, ikasleen egokitzapena errazteko dekalogo bat sortu da irakasleei bideratuta dagoena; eta bestetik ikasleen ongizate emozionala lantzeko Escape Room digital bat.

## 2.1. Irakasle berrientzako dekalogoaren diseinua

Ikasleekin lehen kontaktua egiteko eta errazteko hamar estrategia proposatzen ditu diseinatutako dekalogoak. Ongizate emozionala hain garrantzitsua den espazio batean, ikasleentzat ikasgela giro segurua bihurtzea da dekalogo honen helburu nagusia. Irakasleen zeregin hau errazteko asmoz, hurrengo estrategiak proposatzen dira literatura zientifikoan aurkitutako autoreen iritziak aintzat harturik eta baita irakasleen elkarrizketetan jasotako informazioa kontutan izanik. Zehazki, datu base desberdinetan egindako bilaketan bidez eskuratutako informazioa erabili da dekalogo hau osatzeko, hala nola, Dialnet, Scopus eta Web of Science. Era berean, EHUko liburutegiaz eta Google Scholarrez baliatuz, gaiari lotutako liburuak eskuratu dira. Bilaketak egiteko filtro desberdinak erabili dira. Izan ere, XXI. mendeko euskarazko, gaztelaniazko eta ingeleseko hizkuntzetan oinarritutako bilaketak egin dira, *“ongizate emozionala” “ospitaleko pedagogia” “lehenengo kontakturako estrategiak” “ikasle-irakasle harremana”* hitz gakoetaz baliatuz. Azkenik, ospitaleko pedagogiaren arloan urteak murgilduta daramaten adituetatik informazioa jaso da ere, zehazki, OETHtik.

Honelako dekalogo batek, eragin nabarmena izan dezake ospitaleratutako ikasleen hezkuntza-esperientzian. Era berean, ikaslearen eta irakaslearen arteko hasierako komunikazioa hobetzean, hasieratik elkarrenganako konfiantzazko eta laguntzako giroa sor daiteke, eta horrek antsietatea gutxitzen eta ospitale-ingurunekeo kidetasun-zentzua sustatzen laguntzen du. Gainera, ikasleekin harreman eraginkorrak izateko tresna praktiko eta malguak ematen dituenek, dekalogo baliabide baliotsua izan daiteke testuinguru horretan lan egiten duten irakasleentzat, horrela ospitaleetako ikasgeletako irakaskuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetuz. Ondorengo taulan (5. Taula) agertzen da zehazturik dekalogoak.

### **5. Taula**

#### *Diseinatutako Dekalogoak*

#### **DEKALOGOAK**

---

##### **Ikaslearen ongizatea bermatu**

---

Aurretik aipatu bezala, ikasleen ongizatea bermatzea funtsezkoa da ikasgela espazio segurua bihurtzeko. Ikasle askorentzat, ikasgela ospitalarioak gaixotasunaren errealitatetik aldentzen laguntzen die (Lizasoain, 2000). Ir2 irakasleari egindako elkarrizketan, argi azaldu zen haur bat lan egin ahal izateko, emozionalki ongi egon behar dela. Ideia horretatik, abiatuta, ezinbestekoa da, ikasgela honen barruan sartzen den momentutik euren behar fisiko zein emozionalak asetzea, ikaslea ondo sentitu dadin. Honi lotuta, ikusi izan

---

---

da harreman positibo horiek ospitaleratutako ikasleen errendimendu akademikori, motibazioari eta ongizate emozionalari laguntzen diotela eta, horretarako, hainbat testigantza daudelarik: Piantak eta Hamrek (2009), Lizasoain (2021), Garuz (2021), Flores (2019) eta García-Docampo (2022), beste batzuen artean.

---

### **Gertutasunarekin eta samurtasunarekin ekin**

---

*Maitasuna eta Samurtasunaren Pedagogiak* samurtasuna funtsezko bertutetzat hartzen ditu hezkuntza zein familia jardunetan. Ospitaleko Pedagogian aplikatutako pedagogia honek ikasle-pazientearen bizi-kalitatea hobetzen du ospitalizazioan zehar, ikasleak klasera sartzen diren lehenengo momentutik konfiantza garatuz (Carrasco, 2019). Honi esker, ongizate emozionala sustatzen da, konfiantza-harremanak ezartzen dira, sendatze-prozesuan laguntzen da, garapen integrala sustatzen da eta ikaskuntza motibatzen da; eta horrela, haurraren hazkunderako eta ongizaterako ingurune egokia sortzen da ospitale-testuinguru batean (Caro eta Fontalvo, 2020; Chaves, 2012; Flores, 2019). Honekin bat, egiten du Ir1 irakasleak, ikasleengan modu gertuko batean hurbiltzearen garrantzia azpimarratzen duena. Ikasleak ospitaleko irakasleak ezagutzen dituztenean, oso egoera arrotza izaten da: baterekin datozen bi ezezagun ikaslearen logelan sartzen dira. Hori errazteko, Ir1ek modu gertuko batean hurbiltzea ezinbestekoa ikusten du, euren burua aurkeztuz eta ikasleekin hitz egiteko edo jolasteko espazioak sortuz. Behin ikaslea pozik ikusten dutenean, eskolara etortzeko esaten diote. Gainera, helburu horiek lortzeko irakasleen ezaugarri bereziak behar dira ospitaleratutako haurrak zaintzeko (Fonseca, 2016; Guillenek eta Mejiasek, 2011), funtsezkoa izanik gizarte trebetasun positiboak izatea eta baita ikuspegi enpatikoa ere (Bagur eta Verger, 2022; García-Parra eta Sepulcre 2021; Lizasoain, 2021).

---

### **Ikaslearen interesguneak kontuan izan**

---

Ikaslea eroso sentitzeko estrategia desberdinak proposatu izan dituzte, Ir1 eta Ir2k. Biak bat egiten dute, ikasleak eroso eta gustura sentitzeko garrantzitsua dela ikasle bakoitzaren nondik norakoa ulertzea. Horretarako gakoa, ikasleen interes eta beharretara egokitzea da, bai arlo akademikoan bai emozionalean ere. Ikasleen interesa pizteko, bere gustuko afizioetan fijaszea eta horietaz hitz egiteak asko laguntzen duela adierazi dute bi irakasleek. Ir2k adierazi bezala “ikasleen munduan sartzea da gakorik garrantzitsuena” (elkarrizketa, 9.or.).

Montero-Calderonek (2013) bat egiten du, ikasleen interesguneek ospitaleko gelan egotea eta parte hartzea bultzatzen dutelaren ideiarekin, adibide gisa Sant Joan de Deuko ospitaleko ikasgela jarriz. Horrez gain, lehen saioetan ikaslea ezagutzeko denbora eskaintzearen garrantzia azpimarratzen du, loturak ezartzeko eta hortik abiatuta hezkuntza interesetara iristeko. Abestiak edo musika motak, animaliak, telesailak edo filmetak hitz egitea proposatzen ditu haurrak ezagutzeko estrategia gisa.

Bestalde, ikasleen interesguneak, aitzitik garrantzi azpimarratu izan da hezkuntza arloan. Decrolyk (1932) proposatutako *interesguneen metodoan* azaltzen den bezala, haurtzarotik, haurrak bere inguruan gertatzen den guztian interesa jartzen du, ikusten duen edozein objektu edo egoerari arreta handia jartzen dio eta jakin-mina sortzen zaio inguratzen duen guztia ezagutzeko. Metodo honi esker, ezaugarri adierazgarrietako bat ikasgaien araberako programazioa alde batera uzten duela izan zen, eta horren ordez, gune tematiko batzuk proposatzen ditu, interesguneak deritzenak eta ikasleek sortzen dituztenak ematen diren egoeren arabera. Izan ere, eskola tradizionalako eduki hezitzaile guztiak sistema honen objektuak izan daitezke, hala ere, gizabanakoaren beharren arabera ikasiko dira. Metodologia hau, ospitaleko pedagogian praktikan jarriz gero, ikasleen parte-hartze aktiboa eta motibazioa sustatuko dira batik bat (Vitarelli eta Margall, 2020).

Riveros eta Moralesek (2015) proposatutako interesguneetan oinarritutako proiektuaren bidez, interes-zentroen norberatasuna frogatu ahal izan da lehen haurtzaroan esku hartzeko hezkuntza-estrategia gisa eta jakintzak eraikitzeko espezifikoki. Bere onurak hezkuntza arloan ez ezik, ikasleen kultura, gizarte eta pertsonalean ere nabarmentzen dira.

---

### **Ikasleen emozioak ulertu, jarrera enpatikoaren bidez**

---

---

Ospitale-eremuan, emozioen kudeaketa funtsezkoa da hurrek beren egoera hobeto onar dezaten, beldurrak kontrolatuz eta aldartea hobetuz (Zambrano, 2015). Ospitaleratutako hurrek beldur larriagoak izaten dituzte ulermen-faltagatik, familia-banantzeagatik eta prozedura medikoengatik (Carrasco, 2008), hortaz, adimen emozionalaren lanketa aberasgarria izan daiteke kasu hauetan (Quevedo eta de la Peña, 2018). Hori dela eta, oso garrantzitsua da ospitaleetako geletan hurrek gaitasun emozionalerako trebatzea, haien beldurrak eta kalteak kontrolatzen ikas dezaten (Lallana, 2019; Lizasoain, 2016; Quevedo eta de la Peña, 2018; Zambrano, 2015). Gainera, Ir2-ren arabera, askotan adimen emozionala lantzeko materiala ez da gako bakarra, izan ere, ikaslearen egoera pertsonala zein ikaslearen testuinguruari arreta ematea ezinbesteko zeregina da, bere emozioak adierazteko une seguruak sortuz. Horregatik, Ir1ek adierazi zuen bezala, ikasle bakoitzari bere lekua ematen saiatzen dira. Eskola bakoitzaren iritziak zein emozioak adierazteko espazio seguruak bilakatu.

---

### **Jolasen bidez konektatzea**

---

Jolas kooperatiboak eta jolasean oinarritutako ikaskuntza, ikaskuntzarako eta ongizaterako tresna boteretsuak direla ikusi izan da (Borrego et al., 2017; Hamari et al., 2014). Izan ere, Hamari et al.-ek (2014) Jolasean Oinarritutako Ikaskuntzaren onurak azpimarratzen dituzte, eragin positiboa eta giro kooperatiboa azpimarratuz (Del Moral, 2014). Horietaz aparte, jolasak onura anitzak ditu garapen kognitiboan, pentsamenduaren garapenean, autonomiaren sustaketan, trebetasun sozialen garapenean etab. (Valencia, 2019). Hori horrela, jolasa minbizia duen hurrari eta haren familiei gaixotasunari aurre egiten laguntzeko gehien erabiltzen den tekniketako bat da; izan ere, tentsio fisikoak eta emozionalak askatzeko aukera ematen du, jarrera-aldaketa eragiten du, portaera positiboak garatzen ditu eta mediku-aginduak betetzen ditu, eta hurraren bizi-kalitatea hobetzen du (Fernández et al., 2017).

Ildo horretan, 1971n, Patch Adams medikuak Gesundheit Institutua sortu zuen (Estatu Batuetan). Adamsen helburua dibertsioa, zoriontasuna eta laguntasuna mediku-praktikara eramatea zen. Horren ondorioz, pailazoen elkarte asko ospitaleratutako hurrekin lanean hasi ziren, haien ongizate emozionala hobetzeko eta ospitaleko logeletako errealitatea apurtzeko. Beste behin ere, hurrekin konektatzeko gehien erabiltzen den bitartekoetako bat jolasa izanez (Fernández eta al., 2017).

Idea horrekin bat egiten dute, ospitaleko ikasgelako bi irakasleek, Ir1 eta Ir2k. Ikasle askoren kasuan, jolasak bere errealitatek aldentzen eta ondo pasatzen laguntzen dietela iruditzen zaie. Izan ere, haien errealitatea, egunak eta egunak familiarekin logela batean pasatzean datza eta jolasean orduak pasatzeko aukera horri esker haien egoeraz aldentzen dira. Hori dela eta, jolasen alde ludiko horrek, lagundu dezake ikasleak errealitateaz aldentzen eta ikaste-prozesu horretan errazago barneratzen eta gehiago disfrutatzen.

---

### **Ikasleen logelak lehenengo kontakturako espazioak bihurtuz.**

---

Aurretik azaldu den ikasle-irakasle arteko lehenengo harremanaren egoeraren arrotza kontuan izanda, ikasleen logelak askotan 1. kontaktu horren testuinguru bilakatuko dira (Reyes et al., 2018). Ikasleen logelak haien espazio seguruak dira ospitalearen barruan, izan ere, ikasleak honetan ordu asko pasatzen ditu, hortaz, hasierako kontaktuetan espazio honetan lan egiteak konfiantzazko giroa sustatu dezake (Cuesta et al., 2021).

Hori horrela, beharrezkoa da espazio hauetan ikaslearen beharrak asetzeko estrategiak garatzea. Ir2k ikasleak logeletan irabazteko hainbat proposatu zituen elkarrizketan: klaseren bat gelan eman, jolasak bertara eramatea eta ikasleekin jolastea, bere interesak ezagutzea, gurasoekin klaseak ematea haurra seguruago sentitu dadin etab. Izan ere, Ir1ek adierazi bezala, behin lotura hori egin dela, errazago izango da ikasleak eskolara joatea.

---

### **Familia eta irakasleen arteko komunikazioa eta parte hartzea**

---



---

Ospitalizazioak eskola-lanerako erronkak ditu; beraz, funtsezkoa da ikasle bakoitzaren ezaugarri familiarrak kontutan hartzea ere (OETH, d.g.). Esan bezala, familiak funtsezko eragileak dira ospitaleratutako ikasleen hezkuntza-prozesuan, zeregin horretan aktiboki parte hartuz. Haurraren historia pertsonala eta psikologikoa ulertzeko bitarteko gisa duten paperak funtsezko laguntza- eta lankidetz-eragile bihurtzen ditu (Flores, 2019). Aisialdian, gurasoen eragina nabarmentzen da, eta une aproposak dira ospitaleko aretoan familia-giroa sortzeko (Lallana, 2019). Ir1k adierazi bezala, gurasoak seguru sentitzen badira, haien hurrei klaseekiko segurtasun hori transmitituko diete eta errazagoa izango da ikasleak ikasgelara joateko nahia izatea.

Grausek (2019) ere familiaren, ospitalearen eta eskolaren arteko interakzio komunikatiboaren garrantzia nabarmentzen du ospitale-inguruneke hezkuntza-erronkei aurre egiteko. Hezkuntza-zentroaren eta osasun-zentroaren arteko lankidetz funtsezkoa da arazoak konpontzeko eta informazioa etengabe partekatzeko. Hortaz, hiru agente hauek modu sinergikoan funtzionatzen dutenean ospitaleko ikasgelek onura esanguratsuak sustatu ditzakeela ikusi da, hala nola, ikaslearen autonomia, autoestimua hobekuntza eta estresaren murrizketa (Costa, 2000). Horrek egoeraren ikuspegi positiboa eta zorientasun handiagoa ematen du, nekea eta asperdura saihestuz (Rubio eta González, 2001).

Bestalde, nahiz eta, espazio faltagatik eta ikasleek eskolaren antzeko errealitatea irudikatzeko helburuz orokorrean familiak eskolaz kanpo gelditu behar diren, Ir1 eta Ir2k aipatu zuten bezala salbuespenak egin daitezke. Batik bat, ikasleak behar bereziak dituen eta eskolan espazio nahikoa dagoenean, gurasoei sartzen uzten zaie ikasleak erosoago sentitu ditzaten.

---

### Irakasleen jarrera positiboa

---

Ikaslea gustura sentitzeko ezinbestekoa da, irakaslearen jarrera motibagarria eta positiboa izatea. Hezkuntza-esparru hauetan kalitatezko harremanak ezartzeko hainbat faktore kontutan hartzea garrantzia dute (Flores, 2019): (1) *Sinesmenak eta aurreiritziak*: Irakaslearen sinesmenek, bere prestakuntza eta esperientziatik eratorritakoak, eragina dute haren jardunean; (2) *Motibazioa*: Irakasle motibatzaileek ikaskuntza sustatzen dute giro positiboa sortuz, interesa piztuz eta jarrera baikorra mantenduz; (3) *Dimentsio afektiboa*: Lotura afektibo on batek komunikazioa eta ulermena errazten ditu, eta gelako giro emozional positiboan laguntzen du; (4) *Ikaskuntza esanguratsua*: irakasleek ikasleen aurretiko ezagutzak eta ezagutza berria uztartzea, ikaskuntzan motibazioa eta zentzua sortzeko; (5) *Komunikazioa*: Bi norabideko komunikazioa, entzute aktiboan, etengabeko atzeraelikaduran eta enpatian oinarritua egotea, komunikazioaren kalitateak hurbiltasunaren pertzepzioari eragiten dio eta, beraz, ikaskuntzari. Hala ere, ospitaleko ikaslearen eta irakaslearen arteko harremanak oztopoak izan ditzake, hala nola osasun-baldintzen aldakortasuna eta muga logistikoak. Hori dela eta, moldagarritasuna eta estrategia espezifikokoak behar dira (Lisasoain, 2016).

---

### Ikasleen arteko sozializazioa

---

Ikasleak ondo sentitzeko, berdinen arteko harremanak asko lagundu dezake. Beste hurrekin egotea, nahiz eta adin desberdinekoak izan asko lagunduko du, klasean eroso egoten (Rubio eta González, 2001; OETH, d.g.;

Ospitaleetako ikasgeletan berdinen arteko gizarte-laguntza oso garrantzitsua da, ospitaleratutako haur eta nerabeei gizarte-ingurune positiboa ematen baitie, harremanak ezartzeko, esperientziak partekatzeko eta talde bateko kide sentitzeko. Horrek nabarmen laguntzen die haien ongizate emozionalari eta psikologikoari (Barrios, 2016; Carrasco, 2014). Testuinguru horretan, pareekiko elkarrekintzak laguntasuna eta laguntza emozionala eskaintzeaz gain, garapen integrala sustatzen duten hezkuntza- eta jolas-jardueretan parte hartzeko aukera ere ematen die (Lisasoain, 2021).

Horrekin batera, ospitaleetako ikasgeletako berdinen arteko gizarte-laguntzaren eta zorientasunaren arteko harremana honako ideia honetan oinarritzen da: antzeko adineko ikaskideekiko elkarreragin positiboek emozio positiboak sor ditzaketela, gogobetetasun pertsonala areagotu eta ospitaleratutako haur eta

---

---

nerabeengan ongizate subjektibo handiagoa lortzen lagun dezaketela (Barrios, 2016.; Rubio eta González, 2001). Pertsonen arteko harreman positibo horiek egoera zaileri aurre egiteko beharrezkoa den oreka emozionala sustatzeaz gain, adingabeek beren bizitzan duten pertzepzioan ere eragin dezakete, emozio positiboak sustatuz eta negatiboak murriztuz (Lizasoain, 2021).

---

### Programen arreta espezifiko eta malgutasuna

---

Ospitalizazioak eskola-lanerako erronkak ditu; beraz, funtsezkoa da ikasle bakoitzaren beharretara egokitutako banakako hezkuntza-arreta ematea (OETH, d.g.; Martinez, 2023). Horrekin lotuta, Ir1 eta Ir2k funtsezkoa ikusten dute material anitza izatea, honek inprobisatzeko aukera egokiagoa ematen duelako eta ikasleen beharretara hobe moldatzeko aukera ematen dutelako. Izan ere, ikasleak ezagutzeko lehenengo momentuan, ikasleen maila zein den ezezaguna da irakasleentzat. Zeregin horretan, Ir1ek adierazi zuen, ikasleen frustrazioa ekiditeko hasieran lan errazekin hastea eta maila gutxinaka moldatuz doa. Orduan askotan jartzen dizkieten lanak oso erraz egiten zaizkie edo kontrari oso zailak. Hala ere, apurka-apurka bertako irakasleek ikasleen Garapen Hurbileko Eremua (GHE) identifikatu dezakete eta ikasleen ikaskuntza eta ematen diren laguntzak moldatuz joaten dira. Horrela, ikasle batek modu independentean egin dezakeenaren eta tutore edo lankide trebeago baten laguntzarekin lor dezakeenaren arteko espazioa identifikatzen joaten dira eta ikaskuntza espazioa horretara mugatzen joaten dira (Graus, 2019; Venet eta Molina, 2014).

Ospitaleko pedagogiaren testuinguruan, GHEk garrantzi berezia hartzen du, gaixotasun edo susperraldi egoeran dauden ikasleen ikasteko ahalmena identifikatzeko aukera ematen baitu. Ospitaleko pedagogian GHEa aplikatzean, onurak nabarmenak dira ikasleentzat eta badaude ingurune horretan mesede egiteko modu batzuk (Graus, 2019): (a) *laguntza pertsonalizatua*: ikasle bakoitzaren GHE identifikatzean, hezitzaileek irakaskuntza-estrategiak egokitu ditzakete, ikasle bakoitzaren trebetasun eta ezagutza espezifikoaren garapena sustatuko duen laguntza pertsonalizatua emateko; (b) *ikaskuntza akuilatzea*: GHEn lan egitean, ikasleek erronka handia izaten dute beren tutoreen laguntzaz helburu handiagoak lortzeko. Horrek ikaskuntza sustatzen du eta beren hezkuntza-garapenean aurrera egiteko aukera ematen die, nahiz eta osasun egoera txarrak izan; eta (d) *elkarrekiko lankidetzeta eta laguntza*: GHEk ikasleen eta hezitzaileen arteko lankidetzeta sustatzen du, baita ikasleen beraien artekoa ere, ikaskuntza eta ongizate emozionala ospitale-testuinguru batean errazten dituen elkarri laguntzeko ingurunea sortuz.

---

*Iturria*: elaborazioa propioa.

## 2.2. Ongizate emozionala sustatzeko Escape Room digitala

### *2.2.1. Escape Roomaren diseinua*

Ospitaleko ikasgeletako ikasleen ongizate emozionala sustatzeak duen garrantziagatik sortu da Escape Room digitala. Hartara, ikaskuntza dinamikoa eta aberasgarria eskainiko zaie ikasleei. Ikuspegi horrek hezkuntza-esperientzia dibertigarria eta erakargarria eskaintzeaz gain, ikasleek emozioak modu aktibo eta parte-hartzailean aztertu eta ulertu ahal izateko espazio segurua ere eskaintzen du. Hori dela eta, emozioetan Escape Room digitala ezartzeak eragin positiboa izan dezake ikasleen hezkuntza-esperientzian, eta, aldi berean, haien behar emozionalak landu eta ikaskuntza-giro positiboa eta aberasgarria sustatzeko

aukera ematen du. Gainera, Escape Room-ak *Koloretako Munstroa* ospitaleratzearen historia kontatzen du eta emozio bakoitza bere ospitaleratzearen une zehatz batekin batzen du, horrela ikasleak euren errealtatearekin identifikatuta sentitu ahal izan daitezten eta emozioen lanketa naturalago izan dadin.

Escape Room digitala egitea erabaki da, tablet baten bidez edozein tokitan jolastu daitekeelako. Horrek, hain aldakorra eta osasunaren menpe dagoen ospitaleko testuinguru batean, aukerak ematen ditu ikasle orok parte hartu dezaten ospitaleko edozein tokitan daudelarik, hau da, eskolan zein logelan daudenak. Aplikazio honen aukeraketari dagokionez, Geniallyk plataforma doako, intuitibo eta malgu bat eskaintzen du Escape Room digitalak sortzeko, multimedia elementuak pertsonalizatzeko eta integratzeko aukera emanez. Plataforma anitzetarako irisgarritasunak hainbat gailutatik parte hartzea errazten du, eta segimendu- eta azterketa-tresnek, berriz, jolasaren errendimendua ebaluatzeko aukera ematen dute.

### 3. Irudia

#### *Escape Roomaren Estazioen Egitura*



*Iturria:* sortutako Escape Room digitalaren argazkia

Oinarrizko emozioak ezagutzuz eta ulertuz ikasleen ongizate emozionalari heltzeko tresna gisa proposatzen da *“Munstroaren emozioak bilatzen”* izeneko Escape Room digitala ezartzea, Koloretako Munstroa erreferentzia nagusi gisa erabiliz. Ekimen honen helburu nagusia ikasleen eta Koloretako Munstroaren arteko interakzio parte-hartzailea sustatzea da, funtsezko emozioei buruz ikasteko: alaitasuna, tristura, beldurra, amorrua, maitasuna eta lasaitasuna. Honetarako hainbat estazio aurkezten ditu, bakoitza emozio batean oinarrituta dagoelarik (ikusi 3. Irudia). Jarduera eta erronka horiei esker (6. Taula), ikasleek emozioak eta

aurre egiteko estrategiak ezagutu ahal izango dituzte. Estazio bakoitzeko proben ondoren, emozioen medikua agertuko da, emozio bakoitza kudeatzeko aholkuak eta estrategiak emanaz. Escape Rooma hurrengo linkean eskuragarri dago:

<https://app.genial.ly/editor/6609ae79b0f90800146c05bf>

## 6. Taula

### *Escape Roomeko Estazioak eta Erronkak*

Estazioak	Istoria	Jarduerak
1. Tristuraren estazioa	Koloreen Munstroak denbora bat darama ospitalean eta ez du ezer egiteko gogorik triste dagoelako. Triste jartze dizkioten gauzak identifikatu nahi ditu.	Parte hartzaileak, aukeratu beharko du ospitaleko eguneroko egoeren artean zeintzuk jartze dioten triste.
2. Beldurraren estazioa	Koloreen Munstroa beldur da, ebakia izango baita. Lasaitzeko aholkuak behar ditu.	Ikasleak beldurraren inguruan munstroak egingo dizkion galderei erantzun beharko die eta hauekin erlaxatutako frogak.
3. Amorraren estazioa	Munstroa haserre dago, ebakuntzaren ondoren ospitalean egun batzuk gehiago eman behar dituelako.	Laguntzeko, ikasleek "Ira" (Inside Out filmeko pertsonaia) eszena bat ikusi beharko dute eta bideo hori ikustean parte-hartzaileak sentitu duena marraztu beharko dute. Ondoren, mezu bat agertuko da, eta parte-hartzaileak marrazkia egiteko erabili dituen pinturei erreparatu beharko die. Bertan, koloreen kode bat egongo da hurrengo estaziora pasaraziko duena.
4. Maitasunaren estazioa	Ebakuntzaren ondoren koloreen munstroak bere ikaskideen eskutitza jaso du, nahi duten guztia esanez eta faltan botatzen dute.	Gutun hau irakurri ondoren, parte-hartzaileak gezi-kode bat aurkitu beharko du, hurrengo pantailara sartzeko.
5. Poztasunaren estazioa	Bere kideen laguntza jasotzean, Koloretako Munstroa oso pozik sentitzen da eta zorionsu egiten duten gauzetan pentsatzen hasi da.	Koloretako Munstroak, ikasleari zorionsu egiten dizkioten gauzen potea betetzea eskatuko dio, triste dagoenean gogoratzeko.
6. Lasaitasunaren estazioa	Azken estazio honetan, ikasleek Koloretako Munstroari lagundu beharko diote egun horretan bizi izan dituen emozio guztien ondoren erlaxatzen.	Horretarako, <i>mindfulness</i> bide bat ikusi eta abesti lasaigarriekin froga desberdinak egin beharko dituzte.
Azkeneko froga: emozioen zuhaitza	6 estazioak gainditzean, Koloretako Munstroak bere koloreei berriro ekingo die eta ikasleari azken proba jarriko dio.	Froga honetan, ikasleak oinarritzko emozio bakoitzari dagokion hostoak eskuragarri izango ditu. Momentu horretan sentitzen dituen emozioen arabera, zuhaitza osatu beharko du.

*Iturria:* elaborazioa propioa.

### 2.2.2. Escape Roomaren aplikazioa

Ospitaleko gelan aplikatu zen Escape Rooma, bi egun desberdinetako goizeko txandan, hau da, 10:00etatik 12:30ak arte. Horietan, adin-tarte desberdinetako 5 ikaslek

parte hartu zuten: Ik1, Ik2, Ik3, Ik4 eta Ik5. Ikasleen osasun egoera dela eta, banaka egin zen, batzuk ospitaleko gelan eta beste bat bere gelan zegoela, tableta baten bidez. IKTen baliabide faltaren ondorioz, ikertzaileak eramandako tablet bakar bat erabili zen. Ikasleak bakarka Escape Rooma egiten zuten bitartean, ikasgelan zeuden beste ikasleak ikastetxeko zereginak egiten egon ziren. Ikasle bakoitzak erronkak konpontzeko eta Escape Room-ean aurrera egiteko jarraibideak jaso zituen. Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleen kasuan, heldu baten laguntza jaso zuten, hobeto ulertzeko eta jardueraz gozatzeko.

Escape Room-ean ikasleen parte-hartze aktibo eta gogotsua ikusi zen. Proposatutako jardueretik interesa eta konpromisoa agertu zuten (Ik1: *"Berriz jolastu nahi dut"*), eta oinarrizko emozioak eta haien adierazpenak gero eta hobeto ulertzen zituztela adierazi zuten, batez ere emozioen zuhaitza egiterako orduan emozioetatik hitz egiten baitzuten eta hauek egoera desberdinekin erlazionatzen baitzituzten: *"Gaur oso pozik nago, oso ongi pasa dudalako jolas honekin"* (Ik2), *"Arratsaldean medikuak frogan emaitzan helaraziko dizkidanez, oso urduri eta beldurtuta nago"* (Ik5). Era berean, ikasle batzuk Escape Roomaren gertaerekin identifikatuta sentitu zirela adierazi zuten: *"Ni ere horrela sentitu naiz ospitalean"* (Ik2); *"Niri ere eskolako lagunak gutun bat idatzi zidaten, oso pozik sentitu nintzen"* (Ik3); *"Tratamendua luzatzen didatenean, munstroa bezala, amorrua eta pena sentitzen dut"* (Ik4).

### 2.2.3. Escape Roomaren balorazioa

*"Munstroaren emozioak bilatzen"* izeneko Escape Room-a amaitu ondoren, ikasleen feedback kualitatiboa lortu zen, autoebaluazio-galdera jakin batzuen bidez (ikus 5. eranskina). Jardueran parte hartu zuten bost parte-hartzaileek asebetetze-maila nahiko handia adierazi zuten, esperientziak gozatu zutela nabarmenduz eta oinarrizko emozioei buruzko ikaskuntza-prozesua oso dibertigarria eta dinamikoa aurkitu zutela adierazi zuten. Zehazki ea Escape Rooma baliagarria egin zitzaien galdetzean, bost erantzunetik, hiruk *asko* erantzun zuten eta bik (Ik1 eta Ik2, ikasle gazteenak) aldiz *nahiko* baliagarria izan zitzaiela zioten. Denek emozio berriak ikasi zituztela aipatu zuten eta ea emozioak kudeatzeko estrategia berriak ezagutzeko aukera izan zuten galdetzean hiruk *oso baliagarria* egin

zitzaiela aipatzen dute, bik (Ik1 eta Ik2, ikasle gazteenak) aldiz *nahiko baliagarriak* . Gainera, denek *oso dibertigarria* egin zitzaiela adierazi zuten. Aipatzekoa da ere, Escape Room barruan proposatutako jarduerak beren emozioak adierazteko eta kudeatzeko duten erabilgarritasuna nabarmendu zutela, maila pertsonalean zein hezkuntza-testuinguruan duten balioa aitortuz: *"Gustura hitz egin nuen nola sentitzen naizen, hobeto sentitzen lagundu zidalako"* (Ik2); *"Orain badakit haserre nagoenean ikasi nituen teknikak erabili ditzakedala norbaitekin hitz egin aurretik lasaitzeko."* (Ik4); *"Konturatu nintzen nola sentitzen naizen marrazten dudanean, hobeto ulertzen ditudala nire emozioak, eta horrek lasaiago sentiarazten nau."* (Ik5).

Hala ere, parte-hartzaile gazteenen erantzunak aztertzean, proposatutako kudeaketa emozionalerako estrategien kontzeptuaren inguruko ulermen falta ikusi da: *"Zer esan nahi du kudeatu?"* (Ik1); *"Ez dut ulertzen zer den estrategia"* (Ik2). Horrek alderdi horiek egokitu eta argitu eta adin bakoitzera egokitu egin behar direla iradokitzen du. Hala ere, erantzun orokorrek erakutsi zuten parte-hartzaile guztiek emozio berriak identifikatu eta esploratu ahal izan zituztela jardueran zehar, eta horrek adierazten du baliabide honek kontzientzia emozionala eta adierazpen emozionala modu eraginkorrean sustatzeko helburua bete zuela.

## ONDORIOAK

Gradu Amaierako Lan honetan ospitaleko pedagogiarekin lotutako hainbat alderdi jorratu dira Donostia Ospitalearen testuinguruan. Ospitaleko ikasgeletako errealitatea aztertuz eta horietan eskaintzen den irakaskuntza-esperientzia deskribatuz; euskarri erabilgarriak diseinatuz, aplikatuz eta balioetsiz, ospitaleratutako ikasleen hezkuntza-prozesua ulertu eta hobetu nahi izan da.

Lehenik eta behin, ospitaleetako ikasgeletako errealitatearen azterketa xeheak ikasleek eta hezkuntza-profesionalek aurrez aurre dituzten erronka batzuk erakutsi ditu. OETH-ek (d.g.) eta gelako irakasleek adierazi duten bezala, ospitaleratutako ikasleen profil-eta beharrizan-aniztasunak erronka nabarmena dakar irakaskuntza planifikatzeko eta gauzatzeko (Fernández-Naresek et al., 2006); baliabideen eskuragarritasun mugatuak (Castellanos, 2015) eta ospitale-inguruak, berriz, eragina izan dezakete hezkuntza-jardueren garapenean.

Bestalde, ospitaleko ikasgeletako irakaskuntza-esperientzia aztertu eta deskribatu da, erabilitako estrategia pedagogikoak, eskura dauden baliabideak eta hezkuntza-profesionalen arteko lankidetzalana aztertuz. Enpatia, moldagarritasunaren eta ingurune erosoaren sortzearen garrantzia nabarmendu da, ikasteko prozesua errazteko eta ospitaleratutako ikasleen ongizate emozionala sustatzeko. Ideia hau bertako ikasgelan nabaritu da eta teoriak ere honekin bat egiten du, izan ere, Saltos et al.-ek (2020) enpatia, Lizasoainek (2016) irakaslearen moldagarritasuna eta Floresek (2019) konfiantzazko harremanak zein ingurune seguruak funtsezko faktoreak bezala definitu zituzten ospitaleko ikasgeletan. Gainera, ikaslea ardatz duen ikuspegia ikusi da, bere banakako beharrei erantzun eta bere garapen integrala sustatzeko ospitale testuinguruan. Izan ere, Martinezek (2023) eta Fernández-Naresek et al.-ek (2006) ezinbestekoa ikusten baitute ikasle bakoitzaren beharretara egokitutako hezkuntza-arreta malgua ematea, globalizatutako curriculum-jardueren planifikazioaren bidez.

Ospitaleko ikasgeletako euskarri erabilgarriak diseinatu, aplikatu, baloratu eta banatzeari dagokionez, emaitzak itxaropentsuak izan dira. Dekalogoak irakasleentzako gida praktikoa gisa sortu da, eta enpatia, komunikazio eraginkorra eta ikasleekiko lotura positiboak hasiera-hasieratik sustatzea du helburu. Nahiz eta, dekalogoaren baliabidea modu pilotuan ebaluatu ez den, ikasgelako langileei erakutsi zaie eta modu positiboan baloratu dute:

*“Errealitatean erabiltzen diren estrategiak ondo adierazten ditu” (Ir1); “Ikasleek zein irakasleek aurkitu ditzazkegun zailtasunei aurre egiteko estrategia baliagarriak dira” (Ir2).*

Gainera, ospitaleratutako ikasleen ongizate emozionala sustatzeko egokitutako Escape Room digitala diseinatu da, alderdi emozional eta kognitiboei modu ludiko eta terapeutikoan heltzen dieten elementu pedagogikoak integratuz. Tresna horren ebaluazio pilotu bat egin da, ikasleen ongizate emozionalean duen eraginari buruzko datuak bilduz. Hasierako emaitzen arabera, Escape Rooma tresna eraginkorra izan daitekeela dirudi ospitaleratutako ikasleen parte-hartzea, asebetetzea eta ongizate emozionala sustatzeko. Emaitza hauekin bat egiten dute hainbat adituekin (Angulo, 2009; Borrego et al., 2017; Costa, 2000; Hamari et al., 2014), jolasa ospitaleko ikasgeletako trena integral eta terapeutiko gisa ulertzen dutenek, haurraren garapen kognitibo, komunikatibo, emozional eta sozialari laguntzen baitio, bere bizitzarekin jarraitzeko aukera emanaz eta estresa murriztuz.

Etorkizuneko ikerketetarako hobekuntzei dagokienez, proposatutako esku-hartzeek ospitaleratutako ikasleen ongizate emozionalean eta errendimendu akademikoan duten eraginaren jarraipen zehatza egitea gomendatzen da. Izan ere, Carrascok (2022) adierazi zuen bezala, irakasleen eginkizun nagusia hezkuntza-prozesuaren jarraitutasuna bermatzea da, gaixotasunaren ondorio emozional kaltegarriak ekiditeko. Jarraipen horri esker, behatutako efektu positiboen iraunkortasuna ebaluatu ahal izango da, eta denboran zehar izan daitezkeen hobekuntza-arloak identifikatu ahal izango dira. Gainera, onuragarria izango litzateke Donostia Ospitalean garatutako hezkuntza- eta terapia-jarduerak beste ospitale-ingurune batzuetara egokitzearen eta hedatzearen bideragarritasuna aztertzea. Horri esker, esku-hartzeen irismena zabaldu egingo litzateke eta hainbat testuinguru eta errealitatetan ospitaleratutako ikasle-kopuru handiagoari mesede egingo litzaioke. Era berean, ospitaleetako ikasgeletako irakaskuntzan azaleratzen ari diren teknologien (hala nola errealitate birtualaren edo adimen artifizialaren) integrazioa ikertzea proposatzen da. Teknologia horiek aukera berriak eskainiko lituzkete ikasleen hezkuntza-esperientzia hobetzeko eta hezkuntza-baliabide berritzaileetarako sarbidea errazteko, batez ere mugikortasuna edo elkarreragin fisikoa mugatuta dauden egoeretan.

Bestalde, ikerketa honen muga nagusietako bat proposatutako esku-hartzeen ebaluazio zehatza egiteko denbora eta baliabideak mugatuak direla da. Dekalogoaren



kasuan, etorkizuneko ikerketak honen inplementazioaren ebaluazioan eta horrek ikasleen ongizate emozionalean eta errendimendu akademikoan duen eraginaren neurketan oinarrituko lirateke. Aldiz, Escape Room digitalaren ebaluazioaren abiaburu-izaera dela eta, emaitzak zuhurtziaz interpretatu behar dira eta epe luzeko eraginkortasuna baliozkotzeko azterketa gehigarrien beharra aintzat hartu. Gainera, ikerketa hau Donostia Ospitaleko ospitale-gelen testuinguruan oinarritu zenez, garrantzitsua da kontuan izatea lortutako emaitzak ez direla orokorrak beste hezkuntza- edo ospitale-ingurune batzuetara. Azterketa osagarriak egitea gomendatzen da hainbat testuingurutan, proposatutako esku-hartzeen baliozkotasuna eta aplikagarritasuna berresteko. Gainera, mugak daude esku-hartze horiek ikasleen ongizate emozionalean duten eragina epe luzera ebaluatzeko. Escape Room digitalaren ebaluazio pilotuan parte-hartzeari, gogobetetzeari eta adierazle emozionalei buruzko datuak bildu badira ere, etengabeko jarraipena egitea proposatzen da, jarduera horiek ikasleei denboran nola eragiten dieten hobeto ulertzeko.

Laburbilduz, Gradu Amaierako Lan honek Donostia Ospitalean ospitaleko pedagogia hobeto ezagutzen eta ulertzen lagundu du. Hobekuntza-arloak identifikatu dira eta ospitaleratutako ikasleen hezkuntza-prozesua optimizatzeko estrategia praktikoak proposatu dira, haien ongizate emozionalean eta garapen integralean arreta jarritz. Lan hori etorkizuneko ikerketetarako eta ekintzetarako abiapuntu izatea espero da, ospitaleetan hezkuntzaren kalitatea hobetzeko eta haur eta nerabe guztien hezkuntzarako eskubidea bermatzeko, haien egoera medikoa gorabehera.

## Erreferentziak

- Angulo, P. (2009). *El juego infantil en las aulas hospitalarias. Propuestas de acciones lúdicas*. Copyplanet.
- Antonio-Aguirre, I., Azpiazu, L., eta Goñi, E. (2024). *Haur eta Lehen Hezkuntzan informazioa biltzeko tresnak*. UPV/EHUko Ikasmaterialen Sare-argitalpenak.
- Avila, H. F., González, M. M., eta Licea, S. M. (2020). La entrevista y la encuesta: ¿métodos o técnicas de indagación empírica?. *Didascalulía: Didáctica y Educación*, 11(3), 62-79.
- Ariza, L. M. (2014). El aula hospitalaria: una pedagogía en positivo. *Educación y Futuro Digital*, (9), 54-59.
- Asensio, P. (2018). La Pedagogía Hospitalaria y los Derechos del Niño: un camino recorrido y por recorrer. Universidad de la Laguna. *XVI Congreso Nacional Educación Comparada Tenerife*. (2-5 or.). <http://riull.ull.es/xmlui/handle/915/11364>
- Bagur, S., eta Verger, S. (2022). Educación inclusiva y pedagogía hospitalaria: las actitudes docentes promotoras de la inclusión. *Revista Brasileira de Educação Especial*, 28, e0140.
- Balarezo-López, G. (2022). El diario como fuente de información. Para la elección de temas de investigación en ciencias de la salud. *Paideia XXI*, 12(2), 309-330.
- Barrios, J. (2016). *Relación entre apoyo social percibido y bienestar subjetivo en el marco de la pedagogía hospitalaria* [doktorego tesia]. Universidad peruana de ciencias aplicadas.
- Borrego, C., Fernández, C., Blanes, I., eta Robles, S. (2017). Room escape at class: Escape games activities to facilitate the motivation and learning in computer science. *JOTSE: Journal of Technology and Science Education*, 7(2), 162-171.
- Botella, A. M., eta Ramos, P. (2019). Investigación-acción y aprendizaje basado en proyectos. Una revisión bibliográfica. *Perfiles Educativos*, 41(163), 127-141.
- Calvo, M. I. (2017). La pedagogía hospitalaria: Clave en la atención al niño enfermo y hospitalizado y su derecho a la educación. *Aula*, 23, 33-47.
- Caro, E., eta Fontalvo, E. (2020). *Conocimientos y habilidades de enfermería sobre pedagogía hospitalaria en la ciudad de Montería* [gradu amaierako lana]. Universidad de Córdoba.
- Carrasco, L. (2008). *Estudio del valor terapéutico de la literatura infantil en los niños hospitalizados* [doktorego tesia]. Universidad de Murcia.
- Carrasco, M. V. M. (2014). Pedagogía clínica–hospitalaria. Atención al alumno–paciente con NEE transitorias. *Educación*, (20), 41-46.
- Carrasco, M. V. M. (2019). La pedagogía del amor y de la ternura, en las aulas hospitalarias del Perú. *Educación*, 25(2), 205-212.
- Carrasco, M. V. M. (2022). Perfil y rol del docente en aulas hospitalarias inclusivas. *Educación*, 28(2), e2642-e2642.
- Casanova, M. A. (2007). *Atención educativa al alumnado enfermo en la Comunidad de Madrid*. Dirección General de Promoción Educativa.

- Castellanos, S. A. P., eta Torres, L. S. Q. (2015). *Propuesta para el apoyo pedagógico y del manejo de las emociones a niños hospitalizados por periodos de tiempo largo o recurrente* [paperezko aurkezpena]. Congreso Internacional Infancia en Contextos de Riesgo (2401-2405 or.).
- Chaves, M. (2012). La pedagogía hospitalaria como alternativa formativa. *Educación* 21(40), 59-74
- Costa, F. M. (2000). *El juego y el juguete en la hospitalización infantil*. Nau Libres.
- Coyne, I. (2006). Consultation with children in hospital: children, parents' and nurses' perspectives. *Journal of Clinical Nursing*, 15(1), 61-71. <https://doi.org/10.1111/j.1365-2702.2005.01247.x>
- Cuesta, M. A., Navarro, B. C., eta Lorente, M. M. (2021). Las Unidades Pedagógicas Hospitalarias. *RINED: Revista de Recursos para la Inclusión Educativa*, 1(1), 115-127.
- Decroly, O. (1932). *El doctor Decroly en Colombia*. Imprenta Nacional.
- Del Moral, M. E. (2014ko urriaren 1etik 3ra). *Advergaming and Edutainment: fórmulas creativas para aprender jugando* [paperezko aurkezpena]. II Congreso Internacional de Videojuegos y Educación (14-24 or.). Universidad de Extremadura. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7715351>
- Fernández, M. (2000). La pedagogía y el pedagogo hospitalarios. *Tabanque*, 15, 1-10.
- Fernández, M., Heras, D., Bastida, J., eta Cepa, A. (2017). Uso del humor como método de intervención terapéutica en menores afectados por procesos oncológicos. *Aula*, 23, 91-105
- Fernández-Nares, S., Cáceres Reche, M. D. P., eta Aznar Díaz, I. (2006). Pedagogía hospitalaria: principales características y ámbitos de actuación educativa (remedial y preventiva). *Revista de Ciencias de la Educación*, 206, 227-248.
- Flores, J. F. (2019). La relación docente-alumno como variable mediadora del aprendizaje. *Revista San Gregorio*, (35), 174-186.
- Fonseca, M. S. (2016). La Pedagogía Hospitalaria como promotora de conductas resilientes. *Serendipia. Revista Electrónica del Programa de Cooperación Interfacultades-UCV*, 5(9), 69-95.
- García-Docampo, L., eta Molina, M. C. (2022). El papel de la psicopedagogía en el ámbito de la pedagogía hospitalaria. *Revista Educarnos*, 2(1), 133-146.
- García-Parra, M., eta Sepulcre, M. P. (2021). Vínculos entre Ética, Tecnología Educativa y Pedagogía Hospitalaria: una revisión sistematizada de la literatura. *EduTec. Revista Electrónica De Tecnología Educativa*, (77), 17-34.
- García-Pérez, J. B. (2018). Aulas hospitalarias: espacios y currículos específicos para situaciones únicas. *Participación Educativa*, 5(8), 197-207.
- Garuz, M. C. (2021). La pedagogía hospitalaria, base para la equidad y la inclusión en situación de enfermedad. *Revista Educarnos*, 5, 31-44.
- Graus, M. E. G. (2019). La zona de desarrollo próximo como base de la pedagogía desarrolladora. *Didasc@lia: Didáctica y Educación*, 10(4), 33-50.

- Guillén, M., eta Mejía, A. (2011). *Actuaciones educativas en aulas hospitalarias: atención escolar a niños enfermos*. Narcea Ediciones.
- Hamari, J., Koivisto, J., eta Sarsa, H. (2014ko urtarrila). *Does gamification work?--a literature review of empirical studies on gamification* [paperezko aurkezpena]. 47th Hawaii international conference on system sciences (3025-3034 or.). <https://doi.org/10.1109/HICSS.2014.377>
- Lallana R., eta De Valladolid, U. (2019). *Aula hospitalaria y atención primaria «EmociónArte Creando»*. Universidad de Valladolid.
- Lázaro, I. G., eta Gallardo-López, J. A. (2018). *Escape room: actividades de escape para trabajar la educación vial en Educación Primaria*. In J. L. Gómez (Edt.), *3rd Virtual International Conference on Education, Innovation and ICT* (115-129 or. ). Edunovatic.
- Llenas, A. (2012). *El monstruo de colores*. Flamboyant.
- León, M. (2017). El valor de las actuaciones pedagógicas en el ámbito hospitalario. *Aula: Revista de Pedagogía de la Universidad de Salamanca*, 23, 49-70. <https://doi.org/10.14201/aula2017234970>
- Lizasoáin, O. (2000). *Educando el niño enfermo. Perspectivas de la Pedagogía Hospitalaria*. Ediciones Eunate.
- Lizasoain, O. (2016). *Pedagogía Hospitalaria. Guía para la atención psicoeducativa del alumno enfermo*. Síntesis.
- Lizasoain, O. (2021). De qué hablamos cuando hablamos de pedagogía hospitalaria. *Edutec. Revista Electrónica de Tecnología Educativa*, (77), 5-16.
- Mayer, J. D., Salovey, P., eta Caruso, D. R. (2000). Emotional intelligence as zeitgeist, as personality, and as a mental ability. In R. Bar-On eta J. D. A. Parker (Eds.). *Handbook of emotional intelligence* (92-117 or.). Jossey-Bass.
- Martínez, E. P. (2023). *Resolución de caso N° 1: Talleres para la aplicación en las aulas hospitalarias desde el enfoque humanista y la didáctica musical* [doktorego tesia]. Pontificia Universidad Católica de Ecuador.
- Montero-Calderón, A. M. (2013). *Las Aulas Hospitalarias: un análisis pedagógico inclusivo* [lizentziatura tesia]. Universidad Internacional de la Rioja.
- Murillo, F. J., Martínez, C. A., eta Hernández, R. (2011). Decálogo para una enseñanza eficaz. *REICE. Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 9(1), 6-27.
- Ospitaleko eta etxeko hezkuntza arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarrirako [OET-H Gipuzkoa]. (d.g.). *Ospitaleko ikasgelak*. <https://oethgipuzkoa.hezkuntza.net/es/ospitaleko-ikasgelak>
- Pianta, R. C., eta Hamre, B. K. (2009). Conceptualization, measurement, and improvement of classroom processes: Standardized observation can leverage capacity. *Educational Researcher*, 38(2), 109-119.
- Quevedo, N. L., eta de la Peña (2018). Estudio en aulas hospitalarias: relación entre resiliencia, inteligencia emocional y habilidades motrices. *Revista de Pedagogía*, 39(104), 127-146.

- Reyes, F., Martín, M. E., eta Daza-Navarro, P. (2018). El papel del docente en un aula hospitalaria de oncología pediátrica. *Revista Andina de Educación*, 1(1), 3-11.
- Riveros, P. A., eta Morales, L. J. (2015). *El centro de interés como metodología didáctica en el proceso de aprendizaje* [doktorego tesia]. Corporación Universitaria Minuto de Dios.
- Rubio, C. G., eta González, C. O. (2001). Las necesidades educativas especiales de los niños con enfermedades crónicas y de larga duración. In C. Grau y M<sup>a</sup>.C. Ortiz (Ed.). *La Pedagogía hospitalaria en el marco de una educación inclusiva* (57-129 or.). Aljibe.
- Saltos, E. R. R., Martínez, M. E. M., eta Gámez, M. R. (2020). Importancia de la empatía docente-estudiante como estrategia para el desarrollo académico. *Dominio de las Ciencias*, 6(3), 23-50.
- San José, C. C., Reques, I. R., eta González, R. P. (2023). Pensamiento, investigación-acción y formación docente. Una revisión sistemática de la literatura. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 98, 353-369.
- Serrano, J.L. (2012). *Posibilidades de las TIC en las aulas hospitalarias de la CARM: diseño y validación de un protocolo de atención educativa* [Master amaierako lana] Universidad de Murcia.
- Valencia, C. C. A. (2019). Beneficios del juego en la acción pedagógica. *Foro Educativo*, (33), 115-122.
- Venet, M., eta Molina, E. C. (2014). El concepto de zona de desarrollo próximo: un instrumento psicológico para mejorar su propia práctica pedagógica. *Pensando Psicología*, 10(17), 7-15.
- Violant, V., Molina, M. C., eta Vicente, C. P. (2011). *Pedagogía hospitalaria: bases para la atención integral*. Laertes Educación.
- Vitarelli, M. F., eta Margall, M. V. M. (2020). La Formación Docente en la modalidad hospitalaria domiciliaria en Argentina: un desafío del porvenir. *Revista de Investigación y Disciplinas*, (3), 93-111.
- Zambrano, J. (2015). *Propuesta de intervención para trabajar la emoción del miedo en alumnos de Educación Infantil de un aula hospitalaria* [Gardu amaierako tesia]. Universidad Internacional de la Rioja.

#### LEGEDIAZKO ERREFERENTZIAK

- 266/2006 DEKRETUA, abenduaren 26koa, ospitaleko eta etxeke hezkuntza arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarriko lurralde zentroak sortzekoa. EHAA, 2007ko urtarrilak 5. <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2007/01/0700057a.pdf>

## ERANSKINAK

### 1. Eranskina: Bisiten egunerokoa

#### 2024ko urtarrilaren 15a, astelehena

Gerturatutako ikasle kopurua: 0

Egindako jarduerak:

#### 8:30-9:00 Ikasleen zerrenda jaso.

Ospitaleko bi irakasleak ospitalizatuta dauden ikasleen zerrenda jaso dute. Honetan, ikaslearen adina eta eskolara joateko baimena duen edo isolatuta gelditu behar den azaltzen da.

Gaurko egunean, gripe garaian gaudenez, ikasle guztiak isolatuak zeuden. Hortaz, ikasleak ezingo ziren eskolara igo.

#### 9:00-10:00 Eguna antolatu eta materialak prestatu

Ordubete honetan, Donostiko Ospitaleko Eskolaren bi irakasleak egun horretarako materiala antolatzen eta egokitzen dute.

Gaurko egunean, eskolara ez zirenez ikaslerik igo behar isolatuta dauden ikasleei ronda egitera joan behar ginen. Hortaz, hauentzako materiala prestatu dute.

#### 10:00-12:30 Eskola ireki, goizeko txanda.

Ikasleak ezin zirenez eskolara igo, irakasleak haien logeletatik ronda egiten joan dira. Ikasleekin hitz egiteko, animatzeko eta material desberdinak eskaintzeko.

Ikasle gehienek, klaseko fitxak, jolasak eta beste gairik gustokoen marrazkiak jaso nahi izan dituzte.

Aldi berean, etxez etxeko zerbitzuko hainbat irakaslerekin elkartu gara eta materialak eskaini dizkiogu.

Ronda amaitzean eskolara igo gara eta eskolaren inguruan hitz egiten egon gara.

#### 12:30-13:00 Atsedena

Ordu erdi honetan, irakasleak deskantsatzeko denbora dute.

#### 13:00-15:00 Eskolako arratsaldeko txanda

Arratsaldeko txanda, eskola berriz irekitzen da bi orduz.

Gaurkoan ikaslerik ez zegoenez, beste ronda bat egitera joan gara. Rondetan ikasleekin denbora pasatzeaz eta jolasteaz aparte, familiekin hitz egiteko aukera ere egoten da.

### 2024ko otsailaren 7, asteazkena

Gerturatutako ikasle kopurua: 2

Ikasleen adinak:

- HH5 mailako ikasle bat, 5 urtekoa.
- LH3. Mailako ikasle bat, 8 urtekoa.

Egindako jarduerak

#### 8:30-9:00 Ikasleen zerrrenda jaso

Gaurko errealitatea nahiko anitza izan da: ume batzuk isolatuta, beste askok logeletan klaseak jasotzeko moduan eta ikasle batzuk klasera igotzeko moduan dago.

Klasera igotzeko dauden horietatik, ez dira zertan guztiak igoko. Nahiz eta medikuaren baimena izan, eskolak boluntarioak dira, hortaz, haiek boluntarioki etorri nahi izan behar dute.

#### 9:00-10:00 Eguna antolatu eta materialak prestatu

Egunero bezala, irakasleak egunerako materiala prestatzen dute. Hurrengo astean emakume zientzialariaren eguna denez, astean zehar emakume zientzialarien gaia lantzen egongo dira: irakurketekin, bibliografiekin eta marrazkiekin. Horretarako materialak adin desberdinetara egokitu behar dituzte.

#### 10:00-12:30 Eskola ireki, goizeko txanda

Eskolako ateak ireki bezain laster, LH3.mailako neska bat etorri da bere gurasoekin. Klasera sartu eta berarekin Emakume Zientzialarien bibliografiarekin hasi gara, zehazki, Ada Lovelacén ingurukoa.

	<p>Irakasle bat berarekin gelditu den bitartean, logeletan dauden ikasleen ronda egitera joan da. Igotzerakoan, material desberdinak prestatu eta jaitsi dizkie.</p> <p>12:00etan klasean zegoen ikaslea medikazioa hartzera joan da.</p>
	<p><u>12:30-13:00 Atsedena</u></p> <p>Gaurko atsedena, irakasleetako batekin elkarrizketa egiteko erabili da.</p>
	<p><u>13:00-15:00 Eskolako arratsaldeko txanda</u></p> <p>Goizeko ikaslea berriz etorri da eta berarekin jolasean egon gara. 14:30 bigarren neska bat etorri da lehen aldiz eta harrera on bat egiteko, berarekin jolasten egon gara 4ak batera. 15:00etan klaseak itxi baino lehen, irakasleetako batek beste buelta bat eman du gela bakoitzetik</p>



**2024ko otsailaren 22, osteguna**

Gerturatutako ikasle kopurua: 3

Adina

- HH4.mailako ikasle bat, 4 urtekoa.
- LH1. mailako ikasle bat, 6 urtekoa.
- LH3.mailako ikasle bat, 8 urtekoa.

Egindako jarduerak

8:30-9:00 Ikasleen zerrenda jaso

Aurreko bisitan bezala, gaurko ikasleen errealitatea nahiko anitza izan da: haur batzuk isolatuta, beste askok logeletan klaseak jasotzeko moduan eta ikasle batzuk klasera igotzeko moduan daude.

9:00-10:00 Eguna antolatu eta materialak prestatu

Gaurkoan ikasle nahiko etortzeko moduan zeudela, irakasleak materialak egokitzen egon dira. Ospitaleko irakasleak, klasean maila eta irakasgai bakoitzeko edukiekin egindako txostenak prestatuta dituzte.

Aste honetan, bi ikasle etortzen egon dira, eskolako etxekolanekin, zehazki, LH 1.mailako eta 3.mailako ikasleak.

Gainera, aste honetan, emozioen murala sortzen ari dira. Honetan, ospitalean dauden ikasle guztiak haien aurpegiak margotu beharko dituzte, hospitalean sentitzen ari dituzten emozioak isladatuz.

10:00-12:30 Eskola ireki, goizeko txanda.

Eskola ireki bezain laister, aurreko egunetan etorritako 2 ikasleak etorri dira. Irakasleetako batek, haien etxekolanekin lagundu die eta bestea ronda egitera joan da. Rondarako, emozioen murala osatzeko hainbat marrazki eraman ditu, ikasleren batek egin nahi bazuen.

Rondatik bueltatzean, arratsaldean HH4.mailako ikasle bat etorri behar zela adierazi digu.

11:30etarako ikasleek haien etxekolanak amaitu dituzte eta denon artean jolasten egon gara. 12:00etan irakasleetako

	<p>batek medikazioa hartzera joan behar izan da. 12:30ak arte beste ikaslearekin pikopiko mahai jolasera jolasten egon gara.</p>
	<p><u>12:30-13:00 Atsedena</u></p>
	<p><u>13:00-15:00 Eskolako arratsaldeko txanda</u></p> <p>Arratsaldean, bi ikasle etorri dira: goizean egondako LH1.mailako ikaslea eta HH4.mailakoa. Emozioen murala azaldu diegu eta parte hartu nahi zutela adierazi dute. Hortaz, haien aurpegia margotzeko fitxa osatzen egon dira bi ordu hauetan. Gainera, emozioen inguruan hitz egiten egon gara.</p> <p>Horretan geunden bitartean, irakasleetako batek ronda egitera joan da.</p> <p>15:00etan gurasoak ikasleen bila etorri dira.</p>

**2024ko martxoaren 7a, osteguna**

Gerturatutako ikasle kopurua: 0

Egindako jarduerak

8:30-9:00 Ikasleen zerrenda jaso

Ikasleen zerrenda jasotzean, ikasle guztiak isolatuta zeudela esan didate. Beraz, ikasleak ezingo ziren eskolara igo.

9:00-10:00 Eguna antolatu eta materialak prestatu

Gaur, etxez etxeko irakasle batek HH5. mailako ikasle batekin bokalak lantzeko materiala eskatu die irakasleei. Irakasleak mailaka prestatutako txostenetatik, fitxa desberdinak hartu eta egokitu dizkiote.

10:00-12:30 Eskola ireki, goizeko txanda.

Ikasleak ezin zirenez eskolara igo, irakasleetako batek haien logeletatik ronda egiten joan dira. Ikasleekin hitz egiteko, animatzeko eta material desberdinak eskaintzeko.

Ikasle gehienek, klaseko fitxak, jolasak eta beste gairik gustokoen marrazkiak jaso nahi izan dituzte.

Beste irakaslea, klasean gelditu da ikasleren bat etortzen baldin bazen. Ez zirenez ikaslerik etortzen, berarekin elkarrizketa egiteko denbora probestu dugu.

12:30-13:00 Atsedena

13:00-15:00 Eskolako arratsaldeko txanda

Goizean bezala, irakasleak ez zuten espero ikasleak etortzerik. Hortaz, irakasleetako batek materiala prestatzen zuen bitartean. Beste irakasleak, doluaren inguruko Latinoamerikako kongresu baten bideo batzuk erakutsi dizkit.

Ondoren, hurrengo bisitan adimen emozionala lantzeko Escape Room-a praktikan jartzeko helburua dudanez, horren antolamendua zehazten egon gara.

Ez zirenez ikasle gehiagorik etorri behar, 14:00etan etxera bueltatu naiz.

## 2. Eranskina: Elkarrizketaren gidoia

### GRAL ELKARRIZKETA

#### 1. Helburua

Donostiako ospitale-gelen errealitatea eta funtzionamendua aztertzea, baita bertako irakasleen esperientzia eta perfila deskribatzea egindako elkarrizketatik eta egunerokoan erregistratutako informazioaz baliatuz, dauden erronkak eta aukerak identifikatuz baita bertako irakasleen esperientzia eta perfila deskribatzea.

#### ***Ikasgelaren errealitatea ezagutzen***

- Nolakoa da klase egun “normal” baten errealitatea (antolakuntza, profesionalak, ordu-tegiak, ikasleak, edukiak...)?
- Nolakoa da ospitaleetako ikasgeletako ohiko lanaldia?
- Zenbat ikaslek egiten dute lan normalean ikasgelan? Zein adinetakoa?
- Zein faktoreren arabera da ikasleen presentzia?
- Nola planifikatzen eta antolatzen dituzue eskolak ospitaleratutako ikasleen behar indibidualak egokitzeko?
- Zein dira ospitale-gelaren eta ikastetxeko gela arteko desberdintasun nagusiak?
- Zer harremana duzue jatorrizko zentroekin?
- Nola lan egiten duzue ospitaleko gela bateko hezkuntza-mailen eta adinen aniztasuna?
- Isolatuta ez daudenean, ikasle guztiak joaten dira egunero eskolara? Egun solteetan?...
- Ematen al dituzue klaserik ikasleen geletan?

### **Agente inplikatuak**

- Zein eragilek hartzen dute parte ospitaleko ikasleen hezkuntzan?
- Zer funtzio du bakoitzak?
- Nola koordinatzen dira pertsonal sanitarioaren eta hezitzaileen arteko komunikazioa eta lankidetzak, ikasleen zaintzaren/arretaren ikuspegi integrala bermatzeko?
- Zein da familien egitekoa ikasleekin? Zer harreman dute familiekin? Familiak klaseetan sartu daitezke?

### **Irakasleen errealitatea ezagutzen**

- Zer da zure lanaren alderik positiboena? Eta zailtasunik handienak?
- Zein da zure ustez JOI metodologia aplikatzeko zailtasun nagusia? Eta hezkuntza emozionala lantzeko?
- Aurreko bileretan, ikasleekin lehenengo kontaktua izatea zaila dela adierazi duzue:
  - Nola bizi duzue une hori?
  - Zer zailtasun bizitzen dituzue momentu horretan?
  - Zein estrategia eta baliabide erabiltzen dituzue egoera hau errazteko/hobetzeko?
- 2. Helburua: Donostiako ospitaleko ikasgeletako irakaskuntza-esperientzia deskribatzea, parte hartzen duten agenteak identifikatzea eta erabilitako metodologia, estrategia pedagogikoak eta eskura dauden baliabideak identifikatzea.


### **Metodologia**

- Nola egiten duzue lan ospitaleko ikasgeletan?
- Nola definituko zenukete zure metodologia? Zein dira zure ildo nagusiak?
- Nolakoak pentsatzen duzue dela ikasleen irakaskuntza esperientzia?
- Zein estrategia erabiltzen dituzue irakaskuntzarako? Eta zein baliabide erabiltzen dituzue?

- Jolasean Oinarritutako Ikaskuntzako (JOI) metodologia erabiltzen duzue?
  - Baiezkoa bada:
    - Nola?
    - Zein onura jasotzen dira jolasa irakaskuntza-prozesuaren parte gisa erabiltzean?
    - Nola egokitzen da ikuspegi ludikoa ospitaleratutako ikasleen adin eta egoera guztietara?
  
- Esparru emozionala espazio garrantzitsua izanik:
  - Nola egiten duzue ikasleen ongizate emozionala bermatzeko?
  - Nola txertatzen da hezkuntza emozionala eskolako jardueretan eta curriculumean?
  - Zein estrategia erabiltzen dira ikasleen ongizate emozionala sustatzeko eta nola ekiten zaie egoera zailei ikuspegi horretatik?
  - Zein baliabide erabiltzen dituzue hezkuntza emozionala lantzeko? Programarik jarraitzen duzue?
  - Zer erantzun jasotzen duzue ikasleengandik?
  
- Nola mantentzen da ospitale-aldi luzeetan dauden ikasleen hezkuntza-jarraitutasuna?
- Nola sustatzen da ikasleek beren osasun-egoeraren arabera ikaskuntzan parte har dezaten eta interesa izan dezaten?
- Zein dira metodologia honen indarguneak eta ahulguneak?
- Ikasleen egoera dela-eta, ikasgelako egoera oso aldakorra da egun batetik bestera. Beraz, nola egokitzen dituzte eskolak ikasle kopuru aldakor horretara?



### 3. Eranskina:Elkarrizketarako baimena



### 4. Eranskina: elkarrizketen transkripzioak

**Elkarrizketatua:** Ir2 (Donostiako ospitaleko irakaslea)

**Data:** otsailak 7

#### **Ikasgelaren errealitatea ezagutzen**

- Nolako da klase egun “normal” baten errealitatea (antolakuntza, profesionalak, ordutegiak, ikasleak, edukiak...)? Nolako da ospitaleetako ikasgeletako ohiko lanaldia?

I: Egun normal batean lehenengo jaisten gara, gu 4.solairuan gaude eta umeak 3.ean. Orduan 3.solairura jaisten gara, ikasleen zerrenda eskuratzeraz, zer ikasle dauden jakin dezagun. 9:00etatik aurrera gelaz gelaz pasatzen gara gure zerbitzua eskaintzen, azaltzen zeintzuk garen eta eskolak nola funtzionatzen duen. 10:00etatik aurrera umeak igo daitezke edo gu logeletara jaisten gara saioak ematera eta materiala ere jaitsi egiten dugu igo ezin diren ikasleei eskaintzeko. Astean 3 arratsaldeetan errutina berdina jarraitzen dugu. Lehenengo ronda txiki bat egiten dugu 12:30etatik-13:30etara, gogorarazteko hor gaudela eta aldaketarik egon bada logela berrietara sartzeko. Arratsaldean 13:30-15:00ak arte berriro igotzea daukate.

- Zer agente eta profesional daude inplikaturik ospitaleko ikasgeletan?

I: Hemen pediatrian bi irakasle gaude, Lehen Hezkuntzako perfila daukagunak, ez



dugu zertan PT espezializazioa izan behar. Unitate psikiatrikoan aldiz, irakasle bat dago orientatzailea dena eta astean behin etxez etxeko zerbitzuko zientzietako irakasle bat bidaltzen dute.

- Zenbat ikaslek egiten dute lan normalean ikasgelan? Zein adinetakoa?

I: Egunaren arabera, egun batean egon zaitezke 4-5 ikasleekin eskoletan eta 2 logeletan atenditu beharra eta beste egun batean ikaslerik gabe egon zaitezke. Ez dira horrenbeste izaten igotzen direnak, 4-6 ikasle gehienez adin desberdintakoak (2-12 urte bitartekoak). Orokorrean LHko ikasle gehio etortzen dira HHkoak baino.

- Zein faktoreren arabera da ikasleen presentzia?

I: Medikuen baimena behar da, hau da, ikaslea eskolara joateko moduan egotea eta haiek boluntarioki joan nahi izatea dira bi faktore nagusiak. Medikuen baimena beharrezkoa da, gu 4.solairuan gaudelako eta hemen ez daudelako sanitarioak. horregatik edozer gauza gertatzen bada 3.solairura jaitsi behar gara. Adibidez, goteroa daukatenek bere solairuko pasilotik ibili daitezke baina ezin dira igo.

- Formakuntzarik jasotzen duzue ikasleek osasun arazoren bat jasaten baldin badute eskolan, aurre egin ahal izateko?

I: Ez, zerbait gertatzen baldin badago 2 irakasle gaudenez bat jaisten da edo telefonoz erizainak abisatzen ditu eta bestea ikaslearekin gelditzen da.

- Nola planifikatzen eta antolatzen dituzue eskolak ospitaleratutako ikasleen behar indibidualetara egokitzeko?

I: Bi ikasle mota daude. Ikastetxetik etxekolanak ekartzen dituztenak eta eskolako eduki hoiak lantzen jarraitzea da gure eginkizuna, ikastetxera bueltatzen direnean erritmoa mantendu ahal izateko. Bestetik, ikastetxetik etxekolanak ekartzen ez dituztenen kasuan, hasieran guk mailaka prestatuta ditugun gai desberdinetako txosten batzuk erabiltzen ditugu haien maila eta beharrak ikusteko eta gero bere beharrei egokitutako materiala prestatzen diegu.

Guk ez ditugu helbururik edo landu beharreko eduki zehatz batzuk eskolan bezala.

Guk oinarrizko ezagutzak eta konpetentziak indartu. Adibidez, euskeran edo gazteleran ulermena edo ortografia landu. Baliagarria diren ezagutzak batik bat, ez dakigulako noiz arte egongo diren ospitalean.

Gainera, tarteka proiektu desberdinak egiten ditugu. Orain bezala, ospitaleak proposatutako *emakume zientzialariaren* proiektua edo gabonetan gaiarekin lotutako zereginak.

- Ospitalarekin batera proiektuak diseinatzen dituzue?

I: Egin izan ditugu, baina covid garaiarekin ospitalaren jarduerak asko murriztu ziren. Arestian, tabakoaren kontrako proiektua, "*Ospitala nola ikusten duzun?*" idazlan txapelketa egin genuen eta aurten emakume zientzialariaren proiektua. Proposatzen digutenari normalean baietz esaten diogu.

Gero ASPANOGIk (minbizia duten umeen elkarte) ere ekintza desberdinak proposatzen ditu ospitalean eta haiekin elkarlan egin dugu proiektu desberdinetan. Esaterako, gabonetako postalen lehiaketan.

Hauek beti boluntarioak dira, ikasleei hauek egiteko aukera ematen zaie baina ez baldin badute nahi ez dute zertan egin beharrik.

- Zein dira ospitale-gelaren eta ikastetxeko gela arteko desberdintasun nagusiak?

I: Ez dauka zer ikusirik. Ikasle kopuru aldetik, eskola txiki batekin antzekotasun gehiago dauka adin desberdinetako ikasleak nahastuta daudelako. Baina hemen egunerokotasuna eta aldakortasuna da gakoa, ikaslearen baldintzak edo eskaeraren arabera egiten dugu lan. Gainera ez dakizu 5 urteko ikasle bat edo 12 urteko bat etorriko den. Orduan, ez da inprobisazioa lana aurretik prestatuta daukagulako baina moldaketak eta egokitzapenak eguneroko kontuak dira. Hori eskolan desberdina da, klasean egin beharrekoa programatuta dago.

Gure geletan aldiz, akademikoaren aria ez galtzea, errutinak izaten ikastea eta gero lan emozional sakona egitea.

- Zer harremana duzue jatorrizko zentroekin?

I: Jatorrizko zentroekin harremana izaten dugu epe luzeko ikasleekin batik bat. Izan ere, ikasle askok aste baterako edo gutxiagorako datoz ospitalera eta horiekin ez dugu beharrezkoa ikusten jatorrizko zentroekin harremanetan jartzea. Noski haiek eta familiekin nahi badute gu prest gaude ikastetxeko irakasleekin harremantzeko, baina normalean ez da egiten.

Epe luzeko ikasleekin, datu babesa dela eta, ezin gara zuzenean ikastetxearekin harremanetan jarri. Guk gure datuak familiari eskaintzen dizkiegu eta haiek nahi badute ikastetxeko irakasleari emateko aukera dute.

- Nola lan egiten duzue ospitaleko gela bateko hezkuntza-mailen eta adinen aniztasuna?
- Isolatuta ez daudenean, ikasle guztiak joaten dira egunero eskoletara? Egun solteetan?...

I: Bai, goizez 10:00-12:30 eta arratsaldez 13:00-15:00, eskola irekita dago nahi duen haurra igo dadin.

Tratamenduaren arabera egun solteetan datozen ikasleak ere ditugu, hauekin bai gurasoekin harremanetan jarri ginen eta hauek jatorrizko ikastetxearekin kontaktua ezartzen lagundu ziguten. Horiekin bai urtean zehar 3 bilerak egiten ditugula, batez ere, ikastetxean galtzen dituen irakasgaiak indartzeko.

- Ematen al dituzue klaserik ikasleen geletan?

I: Bai, baldin badago 12 urteko bat ikastetxearekin adostu dugula berarekin lan egingo dugula eta ezin badu eskolara igo, gu bere logelara jaisten gara berarekin lan egiteko.

- Onkologian dauden ikasleekin lan egiten duzue?

I: Onkologikoekin egin duguna da, etxez etxeko zerbitzua martxan jartzen den

bitartean guk klaseak emateaz arduratzen gara. Ez da berealako gauza, prozedura luze bat dauka:

1. Gurasoek medikuak sinatutako paper bat entregatu behar dute ikastetxean, zeinetan ikaslea hilabete batez edo gehiagoz ikastetxera joan gabe egongo dela jartzen duen.
2. Ikastetxeak beste txosten bat bete behar du eta bere ikuskariari ematen diote, baiezkoa eman dezan.
3. Gure ikuskariak jasotzen du eta onartu behar du.
4. Gure zuzendariari pasatzen zaio eta berak etxez etxeko irakaslearekin (HH, LH, DBH) zein ikastetxeko profesional batekin bilera bat izaten du, eginkizunak adosteko.

Prozesu horrek 2 aste luze hartzen ditu.

### **Metodologia**

- Nola egiten duzue lan ospitaleko ikasgeletan?

Denetarik, momentu eta haurren arabera. Buelta bat eman nahi diogu Jolasean Oinarritutako Ikaskuntza eskolan barneratzeari. Egia da jolasak eta gamifikazio baliabideak erabiltzen ditugula klasean, baina zaila izaten da adin guztientzako jolasak erabiltzea. Ludikoaz aparte, akademikoa lantzen saiatzen gara. Esaterako, txikiekin jolasak.

- Nola definituko zenukete zuen metodologia? Zein dira zure ildo nagusiak?
- Jolasean Oinarritutako Ikaskuntzako (JOI) metodologia erabiltzen duzue?

I: Aurretik esan bezala, JOI metodologia barneratzea gure helburuetako bat da. Aurreko urtean formakuntza jaso genuen eta honetan material zein baliabide asko lortu genituen. Baina errealitate desberdinetara moldatzea ez da beti errexia izan, batez ere, adinari dagokionez.

Baiezkoa bada:

- Nola?

I: Adin eta arlo desberdinetako jolas asko erabiltzen ditugu: matematikak, talde lana eta kohesioa, hiztegia...

- Zein onura jasotzen dira jolasa irakaskuntza-prozesuaren parte gisa erabiltzean?

I: Galdera honi erantzuteko adibide bat jarri nahi dizut. Aurreko urtean UClan zegoen haur bat izan genuen, berarekin jolas desberdinak erabili genituen eta horietako bat asko gustatu zitzaion. Hainbeste izan zen gustatu zitzaiona beretzako bat erosi zuela eta gelan sartzen zen edonor (familia kide, osasun profesional, irakasle...) berarekin partida bat bota behar zuen. Azkenean gainera editorialarekin hitz egin genuen eta edizio berezi bat oparitu zioten. Ume honen eta beste askoren kasuan, jolasak bere errealitateak aldentzen eta ondo pasatzen laguntzen dietela iruditzen zait. Izan ere haien errealitatea, egunak eta egunak familiarekin logela batean pasatzean datza eta jolasean orduak pasatzeko aukera horri esker haien egoeraz aldentzen dira.

- Nola egokitzen da ikuspegi ludikoa ospitaleratutako ikasleen adin eta egoera guztietara?

I: Ikasleen adin eta interesen arabera, jolas batzuk edo beste erabiltzen ditugu. Jolas manipulatioak asko gustatzen zaizkigu adin guztietarako.

- Esparru emozionala espazio garrantzitsua izanik:

- Nola egiten duzue ikasleen ongizate emozionala bermatzeko? Zein estrategia erabiltzen dira ikasleen ongizate emozionala sustatzeko eta nola ekiten zaie egoera zailei ikuspegi horretatik?

I: Ume bakoitza mundu bat da. Batzuk atetik sartzen dira eta ez dituzte gurasoak begiratzen, gurekin ondo daudelako. Lan akademikoa egiteko umea emozionalki ongi egon behar da. Hau lortzeko modu bakarra ez daukagu, ikasle bakoitza nondik nora dijoan harrapatzea da.

Egia da, badauzkagula hainbat baliabide: koloretako monstroaren eta Drilo doktoarearen ipuinak, emozioak ezagutzeko eta lantzeko materiala. Askotan materiala erabili beharreen, gehien bat ikasleen egoerari arreta ematean datza eta bere emozioak adierazteko uneak seguruak sortzea, baina hori umeak markatzen dizu asko.

Gehien bat gakoa, ikasleen interes eta beharretara egokitzea da, bai arlo akademikoan bai emozionalean ere.

- Nola txertatzen da hezkuntza emozionala eskolako jardueretan eta curriculumean?

I: Baloratu egiten dugu, ikastetxeko eginkizunak egiteko moduan dagoen. Baina bestela pixkanaka gauzak probatuz zoaz eta batzuk funtzionatuko dute. Haur bakoitzaren arabera.

- Zein baliabide erabiltzen dituzue hezkuntza emozionala lantzeko? Programarik jarraitzen duzue? Elkarteren batekin egiten duzue lan?

I: Ez, hori ez. Ikastaroak egin ditugu (dueloa lantzearen inguruan, ongizateari buruz...) eta batzuetan Aspanogiko psikologoei eta hezitzaileari laguntza eskatu diegu, baina ez dugu haiekin eguneroko elkarlanik egiten.

- Ikastaroak OETH-k antolatzen ditu edo zuen kabuz?

I: Depende, batzuk OETH-k antolatzen ditu, beste batzuk Euskojaularitzak eta beste batzuk gure kabuz.

- Nola mantentzen da ospitale-aldi luzeetan dauden ikasleen hezkuntza-jarraitutasuna?

I: Harremana baldin badugu ikastetxearekin, astero harremanetan jartzen gara ikaslearen egoera akademikoaren berri emateko. Ze guk ez dugu ebaluatzen, ebaluazioa ikastetxeari dagokio. Gu bitartekari gara, azterketarik egin behar badute ikastetxeak bidaltzen digu, ikasleak egiten du eta guk ikastetxeari bueltan sobre batean bidaltzen diogu.

- Nola sustatzen da ikasleek beren osasun-egoeraren arabera ikaskuntzan parte har dezaten eta interesa izan dezaten?

I: Ba azkenean eskola hauek ospitalea ez den errealitatea eskaintzen da, hori da engantsatzen diena. Izan ere, hemen pasatzen dituzten 4-5 ordu horiek gaixotasuna duten haurrak izatetik berriro ume izatera bueltatzen dira. Zailena da, lehenengo pausu hori ematea eta eskolara etorri nahi izatea. Horretarako ikasleak irabazi behar dituzu.

- Zein dira metodologia honen indarguneak eta ahulguneak?
- Ikasleen egoera dela-eta, ikasgelako egoera oso aldakorra da egun batetik bestera. Beraz, nola egokitzen dituzte eskolak ikasle kopuru aldakor horretara?

I: “Sobre la marcha” inprobisatzen eta ikasle guztiak gai egiteko diren lanak prestatzen. Hasieran ez dakigu zer nolako maila daukaten baina haiekin lan egitearen bitartez, bere beharrak ezagutzen goaz eta lana horietara egokitzen ditugu.

- Klaseko espazioa nola antolatzen duzue?

I: Ikasle bakoitza mahai bat erabiltzen du. Ikasle bat baino gehiago daudenean mahaiak elkartzen dituzte eta bakoitzak bere lanekin aritzen da. Orain mahaiak banatuta daude ume asko isolatuta daudelako baina normalean elkartzen ditugu.

### **Agente inplikatuak**

- Zein eragilek hartzen dute parte ospitaleko ikasleen hezkuntzan? Zer funtzio du bakoitzak?

I: Ospitaleko ikasgelaren bi irakasleak eta etxez etxeko zerbitzuzko irakasleak. Baina horiek normalean logeletan egiten dute lan, ez eskolan.

- Nola koordinatzen dira pertsonal sanitarioaren eta hezitzaileen arteko komunikazioa eta lankidetzak, ikasleen zaintzaren/arretaren ikuspegi integrala bermatzeko?

I: Hezitzaileekin ez. Besteekin, hau da, pertsonal sanitarioarekin ronda egiten dugunean zalantzaren bat baldin badugu galdetzen diegu. Ez dugu bilera zehatzik egiten, ez baldin bada egoera berezi bat. Beharra dagoenean, gu haiengana joatean

gara eta alderantziz. Esaterako, balorazio akademikoren bat egitea trauma bat jaso duen haur baten maila zehazteko eskatu izan dizkigute.

- Zein da familien egitekoa ikasleekin? Zer harreman dute familiarekin? Familiak klaseetan sartu daitezke?

I: Eskolan umea bakarrik sartzen da, hori izaten da askotan ume txikiak atzera botatzen dituen faktoreak. Espazio aldetik eskola ez da oso handia eta ez dago lekurik gurasoak sartzeko. Batzuetan egia da salbuespenak egin izan ditugula, adibidez, behar bereziak dituzten haurrak baina ez da ohikoena.

Harremanari dagokionez, goizean ronda egiten dugunean familia ikusten dugu eta berriak kontatzen dizkiogu elkarri.

### ***Irakasleen errealitatea ezagutzen***

- Zein da zure lanaren alderik positiboena? Eta zailtasunik handienak?

I: Zailtasunak, inprobisazio puntu hori, askotan gainezka egiten duzula, baina aldi berean gauza ona bezala ikusten dut, lanak ez baita monotonoa egiten inoiz. Egun bakoitza desberdina da eta ez zara aspertzen. Beste alde negatiboa, noski umeak joaten zaizkigunean, ze hori ere ikusten dugu eta hori da alderik txarrena guzti hori kudeatzea.

Alde onena, oso esker oneko lana dela eta bizitza beste modu batean ikustarazten dizula. Errealitate horren ondoan, zure etxeko gauzak beste dimentsio bat hartzen du. Denok dakigu hau existitzen dela, baina aurpegia jartzea laguntzen dizu pixkat zure errealitatea gehiago baloratzen. Baina egun batzuetan oso zaila da.

- Zein da zure ustez JOI metodologia aplikatzeko zailtasun nagusia? Eta hezkuntza emozionala lantzeko?

Aurretik aipatu bezala, adin desberdinetako bi haurren beharrak jolas berdinarekin asetzea eta bientzako zerbait baliagarria izatea. Adin desberdinekin jolastea oreka hori aurkitzea zailtasun handiena da.



Hezkuntza emozionalaren kasuan, klasera etorri nahiaren salto hori da gauzarik zailena. Batzutan logelan irabazi behar dituzu, horretarako estrategia desberdinak daude: klaseren bat gelan eman, jolasak jaitsi eta berarekin jolastu, bere interesak ezagutu... Pixkat lotura hori egin. Behin harremana egin duzula errexago etortzen dira, txip aldaketa hori egin baitute. Bai guraso zein ikasleen aldetik.

- Aurreko bileretan, ikasleekin lehenengo kontaktua izatea zaila dela adierazi duzue:

- Nola bizi duzue une hori? Zer zailtasun bizitzen dituzue momentu horretan? Zein estrategia eta baliabide erabiltzen dituzue egoera hau errazteko/hobetzeko?

I: Batzuetan zaila da, gainera bata txuriarekin sartzen gara eta hori umeei atzera egitea eragiten die. Baina strategiak hartzea da, denborarekin ikasleak pistak ematen dizkizutela konturatzen zara. Adibidez, "La patrulla canina"-ren panpinak dituela konturatzen zara ba horren inguruko marrazkiak eskaintzea edo horretaz hitz egitea. Bere munduan sartzea da gakorik garrantzitsuena. Beste batzuetan pistarik ez daukazu eta denbora gehiago behar da. Baina ikasleak orokorrean haien jarrerekin pistak ematen dizkizute.

**Elkarrizketatua:** Ir1 (Donostiako ospitaleko irakaslea)

**Data:** martxoak 7

### ***Ikasgelaren errealitatea ezagutzen***

- Nolakoa da klase egun “normal” baten errealitatea (antolakuntza, profesionalak, ordutegiak, ikasleak, edukiak...)? Nolakoa da ospitaleetako ikasgeletako ohiko lanaldia? Ematen al dituzue klaserik ikasleen geletan?

I: 8:30etan etortzen gara eta jaisten gara erizain kontrolera ikasleen zerrenda hartzera. Ikasleen zerrenda hori menuaren gosariaren zerrenda bezalakoa da. Beraz, hor ez da inoiz diagnostikorik ez ezer agertzen. Guk diagnostikoa ez dugu jakin behar ikasleekin lan egiteko. Behin jasota, gelara etortzen gara eta zerrenda aztertzen dugu. Ikusten ditugu zeintzuk diren eskola adinean dauden ikasleak. Hau da, bi urtetatik hamalau urtera arte, eta salbuespen gisa, batzuetan egoten dira hamasei urtera arte. Onkologikoen kasuan, hemezortzi urtera arte izaten da, orduan horiek jartzen ditugu eta bederatzietatik hamarretan erronda bat egiten dugu geletatik. Gela guztietan sartzen gara isolamenduan ez badaude eskola adinean dauden ikasleei eskola aurkeztu egiten diegu. Hau da, eskola zerbitzua dagoela hemen ospitaleko laugarren solairuan eta medikuaren baimena behar dutela gelara etortzeko. Hori txartel baten bidez dakigu erizainek ematen diotena. Horrela, erizainek badakite hemen daudela eta guk badakigu baimena dutela. Orain dela urte batzuk jarri genuen txarteltxo, hori horrela, denok komunikatuta egoteko.

10:00etan irekitzen dugu eskola eta gero gerta daiteke ikaslea lehenengo aldiz hona etortzea. Gurasoei dagokionez, helduak kanpoan gelditu behar dira. Hasiera batean txikiak badira, gurasoek hurbilketa bat egiten dute, baina gero joan egiten dira eta gurekin gelditzen dira denbora batez.

Denbora batez gelditu behar diren ikasleen kasuan saiatzen gara eskolarekin harremanetan jartzen edo gurasoek edo gu, horrela eskolako lanak bidaltzeko. Bestela, guk ere antolatuta daukagu Haur Hezkuntzatik DBHko azken mailara sailkatutako lan txostenak, irakasgaika eta hiruhileka banatuta. Orduan, hona etortzen direnean, beti ere eskolako lanak egin ahal dituzte. Lehenengo eta gero

bere gustuko lanak egiten ditugu. Eguerdiko saioa astelehen, asteazken eta ostegunetan lan egiten dute ere, baina batzuetan gauza ludikoak egiten ditugu edo elkarrekin egin behar diren joko kooperatiboak edo eskulanak edo horrelako gauzak.

- Zer agente eta profesional daude inplikaturata ospitaleko ikasgeletan? Eta Nola antolatu zarete bata bestearekin?

I: Profesionalei dagokienez, bi irakasle daude. Ikasleak ezin badira gelara lan egitera gerturatu orduan lanak banatu egiten ditugu. Nik egiten ditu lan batzuk eta beste irakasleak beste batzuk. Normalean, hizkuntzetaz bat arduratzen da eta bestea matematika eta zientzietaz. Horretaz, aparte beti gutako bat klasean gelditzen da eta besteak gelaz gela ronda egiten doa. Egunero txandakatzen gara.

- Zenbat ikaslek egiten dute lan normalean ikasgelan? Zein adinetakoa?

I: Aniztasun handia dago, badaude urteko garai batzuetan, esaterako neguan, gripea dela eta ikaslea asko isolatuta daudela. Hortaz, ikasle gutxi edo eztabat etortzen direla. Aldiz, beste garai batzuetan ikasle gehiago datoz, gehienez klasean 7-8 ikasle izan ditugu batera. Adin desberdinetakoak noski, 4 urteetatik 16urte bitarte.

- Zein faktoreren arabera da ikasleen presentzia?

I: Lehenengoa medikuaren baimena da eta bigarrena, ikasleen nahia. Ez du inporta ikasleak botikari lotuta badaude edota ezin badira klasera gerturatu. Haien klaseak eman nahi baldin badituzte, gu bere geletara joaten gara. Aldi berean, salbuespenak egon dira. Askotan medikuek eskolara etortzea ondo etorriko zaiela uste badu, askotan medikazioa beste era batera ematen diete, hona etorri ahal izateko.

Bestalde, askotan ikasleen nahiaz aparte, gurasoen nahia eman behar da. Izan ere, ikasle askok baietz esaten dute eta gurasoek ez dute nahi. Horrelakoetan ezin dugu ezer egin.

Gu beti prest gaude. Horregatik, bi irakasle egonda eskola beti irekita egoten da.

- Nola planifikatzen eta antolatzen dituzue eskolak ospitaleratutako ikasleen behar indibidualetara egokitzeko? Nola lan egiten duzue ospitaleko gela bateko

### hezkuntza-mailen eta adinen aniztasuna?

I: Bi irakasle egoteak, askatasuna ematen digu ikasleen beharrak asetzeko. Bata ronda egitera doa, bestea eskola irekitzen duen bitartean. Ikasle kopurua normalean ez da oso handia. Zailena adin aniztasunari aurre egitea da eta horiei plan desberdinak egitea. Baina, baina, bueno, ohituta gaude. Normalean txikiak handiagoeekin elkartzen direnean, handien lanak egin nahi dituzte, eta egun batzuetan jartzen dizkiogu amankomuneko lanak elkarrekin egiteko. Baina badaude beste egoera batzuetan zaila dela bateratzea. Bestalde, material asko dauzkagu prestatuta baina bueno, askotan datorrenarekin inprobisatzea tokatzen zaigu. Ezin da. Guk ez ditugu planak egiten luzarora. Esan nahi dut astebeteko lana edo proiektu bat bai prestatu dezakegula baina gehiagorik ez.

Gainera hasieran ez dakigu ikasleen maila zein den, ez ditugulako ezagutzen. Orduan askotan jartzen dizkiogun lanak oso errexak egiten zaizkie edo kontrari oso zailak. Moldatzen joaten gara, ikasleek frustratu ez daitezen. Horregatik dira ain garrantzitsuak guk prestatuta dauzkagun material guztiak, hauekin inprobisatzea eta ikasle bakoitzaren beharretara egokitzea askoz errexagoa baita.

- Zein dira ospitale-gelaren eta ikastetxeko gelen arteko desberdintasun nagusiak?

I: Ospitaleko ikasgelak eskola txiki bat izango balitz bezala da. Adin guztietako umeei etortzen dira, denak elkarrekin daude, beraien artean eta gure artean. Eskolara joaten dira, andereñoa ezagutzen dute ere. Ospitaleko ikasgela honetan, inoiz ez duzu garrasiren bat entzungo, lasaitasunean lan egiten da. Gozada bat da. Oso gutxitan gertatzen da ikasle bat urduri egotea eta garrasika hastea.

Gainera, hemen beti lan egiten dugu elkar ezagutzen. Ikastetxe bateko gela eta hemengo ez daukate zerikusirik. Ikasleak gaixorik dauden arren, etortzen direnean hona, askotan gaixorik ez dira sentitzen. Esker on honek ere ematen duen errealitate da.

Ikasle askorentzako beraien egunerokotasuna, errealitate horri hurbilketa bat egiten zaie hemen. Eskolan daude bere lagunak bezala, lan egiten eta eskolara bueltatzen direnean haien mailan egongo direnen lan. Azkenean haiek bizitzen dutena, ez dute

ospitala bezala bizi.

- Zer harremana duzue jatorrizko zentroekin?

I: Normalean ez daukagu diagnostikorik, eta ez dakigu zenbat denboraz egon behar diren ikasleak. Eskolekin harremanetan jartzeko, gurasoei gure lan egiteko modua azaltzen diegu eta txarteltxo bat ematen diegu. Hor gure izen-abizenak daude, gure telefonoa eta gure mezu elektronikoak. Horrela ikastetxeko tutorearekin harremanetan jartzen gara, arlo akademikoaren berri emateko. Inoiz ez digute esaten ikasleak zer duen, astero irakaslearekin komunikatzen gara ikaslearen feedbacka emateko eta hurrengo asteko plangintza egiteko, eguneroko batekin egiten duguna. Haurrentzako aste txarra izan bada, eta ezin izan badu lanik egin egunerokoan honen berri ematen da, baina osasun egoeraren inguruko informaziorik eman gabe.

Ebaluazioaren kasuan, ez ditugu ikasleak ebaluatzen, ikastetxeak ebaluatzen baititu. Hortaz, ikastetxeak azterketa bidaltzen digu, ikasleak egiten du eta guk sobre batean ikastetxera bidaltzen dugu zuzendua izateko.

Gero, isolatuak ez daudenean. Ikasle guztiak dioten dira egunero eskoletara edo solteetan joan. Etorri daitezke ere umeak, edo haien esku bai. Gerta daitezke. Egun bat, hurrengoan

- Isolatuta ez daudenean, ikasle guztiak joaten dira egunero eskoletara? Egun solteetan?

I: Haien esku dago beti etortzea. Normalean etortzen dira. Etortzen direnean jarraitzen dira etortzen bai. Zailena lehenengo engantsea egitea da, behin eskola ezagutzen dutela etortze dira.

### ***Agente inplikatuak***

- Zein eragilek hartzen dute parte ospitaleko ikasleen hezkuntzan? Zer funtzio du bakoitzak?

I: OETHeK eta PT profila daukagun bi irakasle hartzen dugu parte ikasgela hauetan. Oso plantilla txikia gara. OETHeK irakasleen kudeaketaz eta burokraziak arduratzen da

eta irakasleak klaseko eginkizunetaz. Gainera, Aspanogiko psikologoa eta gizarte langileari askotan laguntza eskatzen diegu, ikasleen zein gure ongizate emozionala lantzeko.

- Nola koordinatzen dira pertsonal sanitarioaren eta hezitzaileen arteko komunikazioa eta lankidetzak, ikasleen zaintzaren/arretaren ikuspegi integrala bermatzeko?

I: Batez ere, haiekin osasun arloari dagokion ikaslearen informazioa jasotzen dugu, klasera etorri daitekeen edo ez batik bat.

- Zein da familien egitekoa ikasleekin? Zer harreman duzue familiekin? Familiak klaseetan sartu daitezke?

I: Lehen esan bezala, familiak ezin izan dira klasean sartu, salbuespuek ez ezik. Familiak ikasleekin klasera etortzen dira eta atean gelditzen dira. Agian ume batek ezin badu hona etorri edo ez baldin badu nahi, familiek eskatzen dizkigute marrazkiak edo zerbait egiteko. Horretan ere ibiltzen dira batzuetan gurasoak logeletan, haiekin egiten dute lan.

Normalean familiekin gertuko harremanak izaten ditugu, ikasleen errealitatea hobe ezagutzeko.

### ***Irakasleen errealitatea ezagutzen***

- Zer da zure lanaren alderik positiboena? Eta zailtasunik handienak?

I: Ba, alde txarra umeak gaizki ikustea eta hiltzen direnean guzti hori kudeatzea, askotan familiak prozesu hori bakarrik bizi behar dute eta hori ikustea oso triste da.

Aldiz, alde ona, esker oneko lana dela. Familia gehienek egiten duzun lana eskertzen dizute hamar mila aldiz.

- Zein da zure ustez JOI metodologia aplikatzeko zailtasun nagusia? Eta hezkuntza emozionala lantzeko?

I: Ikastaro asko jaso izan ditugu JOI metodologiaren inguruan eta egoera zailetan dauden ikasleekin konektatzeko eta lan egiteko aukera bikaina iruditzen zaigun arren, zaila izaten da adin desberdinetako ikasleak jolas berdinean parte hartzea.

- Aurreko bileretan, ikasleekin lehenengo kontaktua izatea zaila dela adierazi duzue:

- Nola bizi duzue une hori?

I: Lehen esaten nizun bezala, askotan lehenengo kontaktua haien logeletan gertatzen da. Bapatean batarekin bi ezezagun agertzen dira ikaslearen logelan. Ulertzen dugu, ikasleentzako egoera arraroa izatea. Horregatik beti ikaslearengan modu gertuko batean hurbiltzen gara, gure burua aurkeztuz eta berarekin hitz eginez edo jolastuz. Behin pozik ikusten dugula, eskola etortzeko esaten diogu.

Gero badira ikasle batzuk gehiago engantxatzen direla zurekin edo beste irakaslearekin. Eta hori ere ona da. Eskola guztietan gertatzen da, eta horretaz baliatu behar zara ikaslea eroso sentitu dadin.

- Zer zailtasun bizitzen dituzue momentu horretan?

I: Zailena a izaten da ikasleak klasera sartu eta gurasoak atea ixten duten momentu hori. Bapatean hiru ezezagun elkarrekin.

- Zein estrategia eta baliabide erabiltzen dituzue egoera hau errazteko/hobetzeko?

I: Denborarekin estrategiak eskuratzen zoaz. Garrantzitsuena ikasleen interesa piztea da, esaterako, bere gustoko gauzetaz hitz eginez.

## **Metodologia**

- Nola egiten duzue lan ospitaleko ikasgeletan? Nola definituko zenukete zuen metodologia? Zein dira zure ildo nagusiak? Zein estrategia erabiltzen dituzue irakaskuntzarako? Eta zein baliabide erabiltzen dituzue?

I: Lehen aipatu bezala, goizero 9:00-10:00 bitartean materiala prestatzeko denbora

daukagu. Honetan eguneko baliabideak eta materialak prestatzen ditugu, jakinda zein ikasle etorriko diren eta zeinen logeletara joan beharko garen.

Metodologiari dagokionez ez daukagu metodologia zehatzik, ikasle bakoitzaren beharrak asetzen baititugu eta ikastetxeen lan egiteko moduaren arabera, era batera edo bestera lan egiten dugulako. Lehen aipatu bezala, maila eta hiruhileka sailkatutako txostenak ditugu eduki desberdinekin.

- Jolasean Oinarritutako Ikaskuntzako (JOI) metodologia erabiltzen duzue?

I: Ikastaroak egin izan ditugu eta nahiko interesgarriak iruditzen zaizkigu, baina aurretik esan bezala zaila izaten da, adin desberdinetako ikasleak jolas berdinetara jolastea.

- Nola?

I: Mahai jolas anitzak ditugu hemen, adinkako antolatuak, talde lana, hezkuntza emozionala, hiztegia edo matematikak lantzeko erabiltzen ditugunak.

- Zein onura jasotzen dira jolasa irakaskuntza-prozesuaren parte gisa erabiltzean?

I: Jolasen alde ludiko horrek, lagundu dezake ikasleak ikaste-prozesu horretan errezago barneratzen eta gehiago disfrutatzen.

- Nola egokitzen da ikuspegi ludikoa ospitaleratutako ikasleen adin eta egoera guztietara?

I: Oso zaila da. Egokitzapenak egiten ditugu, hala nola talde desberdinetan jolastu edo ikasle zaharrenek ikasle gazteekin elkar lagunduz jolastea.

- Esparru emozionala espazio garrantzitsua izanik:

- Nola egiten duzue ikasleen ongizate emozionala bermatzeko?

I: Ikasle bakoitzari bere lekua ematen saiatzen gara. Eskola bakoitzaren iritziak



zein emozioak adierazteko espazio segurua bilakatzen saiatzen gara.

- Nola txertatzen da hezkuntza emozionala eskolako jardueretan eta curriculumean? Zein baliabide erabiltzen dituzue hezkuntza emozionala lantzeko? Programarik jarraitzen duzue?

I: Batzuetan programak jarraitu izan ditugu, baina gehienetan epe luzekoak direnez ezin diegu jarraitutasun bat eman. Horregatik, gehienetan guk prestatzen ditugu fitxak.

- Zer erantzun jasotzen duzue ikasleengandik?

I: Orokorrean erantzun positiboak jasotzen ditugu, ikasleak haien kezka pertsona batekin partekatzea eskertzen dute.

- Nola mantentzen da ospitale-aldi luzeetan dauden ikasleen hezkuntza-jarraitutasuna?


I: Ospitale-aldiak denboran mozten doaz. Ni lanean hasi nintzenean duela 17 urte, ikasleak urtebete egoten ziren hemen. Teknologia eta berrikuntza zientifikoei esker, denboraldiak askoz motzagoak dira. Jarraitutasuna bermatzeko, ikastetxearekin koordinatzean dago funtsa. Plangintza on bat egin beharra dago bi eskolen artean.

## 5. Eranskina: Escape Roomaren autoebaluazio galderak eta emaitzak

### 1. Adierazi adin tartea

- 2-5 urte
- 6-7 urte
- 8-9 urte
- 10-11 urte
- 12-14 urte


Adierazi zure adin tartea  
5 respuestas



### 2. Escape Rooma baliagarria egin zaizu?

- Ezer ez
- Nahiko
- Asko


Escape Rooma baliagarria egin zait  
5 respuestas



### 3. Emozio berriak ezagutu ditut?

- Bai
- Ez


Emozio berriak ezagutu ditut  
4 respuestas



### 4. Emozioak kudeatzeko estrategia berriak ezagutu ditut

- Bai
- Ez

Emozioak kudeatzeko estrategia desberdinak ikasi ditut  
5 respuestas



### 5. Oso ongi pasa dut.

- Ezer ez
- Nahiko
- Asko

Oso ongi pasa dut  
5 respuestas

